

**Kontseiluak euskaraz bizitzearen aldeko manifestazioa deitu du garilaren 2rako** / 5

**Unanuarak bi apartamentu eraikitzeko auzolan ugari egiten ari dira** / 9

**Igandean 250 mendi korrikalarik hartuko dute parte Etxarri Aranazko Triku Trail lasterketan** / 16

**Dani Saldisek Inter Movistarren "amets bat bizitzen ari dela" azaldu du** / 18-19

**Materia organikoa konpost bihurtzeko bidaian sakandarrak bat egitera gonbidatuta** / 6-7

**Ziordian oinezkoak nagusi izan eta segurtasunez ibiltzeko neurriak hartzen ari dira** / 6

**Larunbatean Nafarroako Emakume Master Cup Paleta Gomako finalak jokatuko dira** / 17

**Indarkeria matxista lantzen duen 'Memoria eraikiz' ikuskizuna gaur Lakuntzan** / 23





Haizetik babestuta dagoen terraza nahiago dute hainbatek tragoak hartzeko.



Pikuxarri adin nagusitasuna egoitza berrian heldu zaio.



Sukaldarien zain dagoen sukaldea. Leihoaz bestaldean jangela.

# Pikuxar berria zabalik dago

Astlehenean mustu zuten Pikuxar euskal txokoaren taberna. Elkartea hurrengo hilean zabaldu nahiko lukete. Egitekoak falta dira eta batzordeak bilerak egiten ari dira bata bestearen atzetik. Baita eraikina eta plaza berria edukiz betetzeko



Tabernari harrera ona egin zioten eta jendearen joan etorria handia izan zen.



Erga, Aralar eta Satrustegiko mendilerroak ikus daitezke terrazatik.



Azken ukituak eman ondoren ganboikoak antolatutako jarduerak hartuko ditu.



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak  
[www.ventanasegoki.com](http://www.ventanasegoki.com)

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

[egoki@ventanasegoki.com](mailto:egoki@ventanasegoki.com)



948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



**Alfredo Alvaro Igoa** IRURTZUN

Ederra egin duzue! Esaldiaren zentzurik onenean. Horixe izan zen astelehenean Pikuxar euskal txokoaren taberna eta plaza mustzearekin batera hainbatek esan zutena. Pikukideen belarrietan hitz gozagarriak. "Oso pozik" zeuden. Irurtzundarrak "oso kontent" daudela azaldu du Ipe Lizarraga Garziandia bazkideak: "aho bete hortz gelditu dira plazan dagoen iturriarekin, egin dugun atrezzoarekin, dena harriz eginda izatea, guk egina..." Egoitza berria egitearekin batera, herriari erdigunean "plaza bat oparitu" baitiote. Plazaren izenaz galdetuta, bazkideen artean hainbat aukera dituztela azaldu du Lizarragak: Pikuplaza, Auzolan plaza... "Bazkideok erabakiko dugu, jarriko diogu izena, bai".

Astelehen arratsaldean euri zaparrada bota zuen Irurtzunen. Jendeak tabernan opatu zuen aterpea, baina atertu eta gutxira, atzera ere, plaza beteta zegoen. Batzuk zerbait hartzera gelditzen ziren, "normala denez, kuxku-xeatzera ere etorri dira batzuk. Bagenekien erakargarria egin genezakeela eta hala egin dugu. Oso kontent gaude".

Plazara sartu eta tabernako bezeroak plazan eserita ikustean "ia ez nuen sinisten" esan du Pikukideak. Gaineratu duenez, "gu hemen lan eta lan ibili gara. Azken hilabetean ibili gara: hurrengo asteburuan irekiko dugu, ez hurrengoan... Atzeratu egin zaigu eta azken hilabetea niri luzetxo egin zait. Eta jendea hemen ikusi dudanean pentsatu dut: gezurra dirudi, baina hemen dugu jendea". Eraikina zaharberritu dute eta haren aldamenen berria jaso dute, egurrezko fatxada emanez. "Horrela denetarik du: modernopuntua eta zahar kutsua herri erdian. Irurtzun erdian dago, herria halakoez ez dago oso hornituta eta hauspo berri eta polita ematen dio".

Astelehenean ateak zabaldu bazizkion ere, asteburuan bazkideendako egon zen zabalik. "Taberna berriak sukaldea du. Tabernari eta sukaldari berriak daudenez, halako simulakroa egin genuen". Froga egitearena Taberna Batzordearen ideia izan zen, "langileak aritzeko eta bazkideek disfrutatze".

**Auzolangintza**

Lizarragak azaldu duenez, bazkideok "lan asko egin dugu hemen

eta asteburuan asko disfrutatut dugu. Azken finean hau guk egindako lan bat da. Auzolanean lan asko egin ditugu. Gure eskuekin egindako eraikina eta plaza dira. Gelditzen zaizuna da: kontent, pozik, harropuntu bat, gustura...". Hiztegiaren ez du hitz egokirik opatzen sentitzen duena adierazteko. Herriarendako balio duen zerbait egin duzunaren sentipena" dute.

Auzolanarena azaltzeko honako adibidea erabili zuen Pikukideak: "gremioetako langileak rock izarren pare ibili dira. Musikariek jarrita opatzen dute dena, mikrofono aurrean jarri eta kantatzea eta instrumentuak jotzea besterik ez dute. Guk, auzolanean, garbitu edo zulatu behar zen guztia egin dugu eta gremioetakoak beraien lana besterik ez dute egin".

Ilusio hutsarekin ez dira gauzak jasotzen. Bere horretan Pikuxar berria auzolanari eskainitako tenplu txiki bat da. "Hasi aurretik bagenekien ongi antolatatu behar ginela. Alde batetik, jokoan diru asko zegoelako. Baina, batez ere, gure arteko harremanak bermatzeko eta ez erretzeko". Horretarako parte hartzea arautu zuten. "Horrek asko balio izan du ongi antolatzeke, auzolan asko egiteko, gogotsu bukatzeke eta ongi bukatzeke" zehaztu du Lizarragak, "ez zaigu luze egin".

Pikukideak esan duenez, "jendeak eraikin izugarria ikusiko du, baina horren atzean dagoen lana gutxi ikusten dute". 2017tik 27.858 parte hartze ordu egin dituzte bazkideek. Eta auzolanean, berriz, 7.375. Antolakuntzaren buru Zuzendaritza Batzordea izan da. Baina guztia aurrera eramateko batzorde gehiago ere badituzte: finantza, obra, hornikuntza eta kultura. Lizarragak aitortu duenez, "bilera asko egin ditugu eta buruhauste asko izan ditugu, hala izan behar zuen".

**Hastapenak**

San Martin kalean behera eta bidegurutzean ezkerrean egin. 75 metro daude Pikuxarren egoitza zaharretik berrira. "Fisikoki ez gara hainbeste mugitu". Baina aldea handia da. "Hasi ginenean hau zen, erokeria ez, baina bai talde ausart baten egitasmoa. Gure artean konfiantza handia dugu, elkar ezagutzen dugu. Bagenekien hau aurrera eramateko gai ginela. Eta gogotsu geunden. Gainera, herriarendako zerbait aberasgarria zela pentsatzen genuen. Orain, oso kontent gaude".

**Datuak**

- **119 bazkide** dira.
- **537,15 m<sup>2</sup>-ko azalera** erabilgarria du eraikin berriak.
- **Beheko solairuan (140 m<sup>2</sup>):** taberna (66,62 m<sup>2</sup>), tabernako sukaldea (14,52 m<sup>2</sup>), biltegia (12,9 m<sup>2</sup>), komunak (14,23 m<sup>2</sup>), galdara (4,43 m<sup>2</sup>), azpiegiturak (2,83 m<sup>2</sup>), eskailera (2,83 m<sup>2</sup>), eskailerapea (6,16 m<sup>2</sup>), igogailua (2,13 m<sup>2</sup>) eta larrialdietako eskailera (6,23 m<sup>2</sup>).
- **Lehen solairuan (232 m<sup>2</sup>):** sukaldea (48,3 m<sup>2</sup>), jangela (146 m<sup>2</sup>), biltegia (13,35 m<sup>2</sup>), komunak (17,58 m<sup>2</sup>), garbiketara (5 m<sup>2</sup>), azpiegiturak (2,67 m<sup>2</sup>), eskailera, igogailua eta larrialdietako eskailera.
- **Bigarren solairua (232 m<sup>2</sup>):** Ganboikoa (163,87 m<sup>2</sup>), terraza (70,75 m<sup>2</sup>), azpiegiturak (2,67 m<sup>2</sup>), eskailera eta igogailua.
- **Plaza sortu berriak** 400 m<sup>2</sup> ditu.
- **27.858 parte hartze ordu egin dituzte bazkideek:** 2017ko azarotik eta 2018ko abendura 7.852 ordu, 2019an 8.441 ordu, 2020an 7.123 ordu eta 2021eko maiatzera arte 4.442 ordu.
- **7.375 auzolan ordu egin dituzte bazkideek:** 2018an 61 ordu, 2019an 758, 2020ean 4.076 eta 2021 2.480.

Elkartekoek aurreko egoitza alokatuta zuten eta "ez genituen berritze lanak egiten, zaila zelako". Baina, batez ere, lehengo egoitzak "bazkideendako, elkar-te gisa, ez zuen zerbitzurik ematen. Ez zen eroso. Eraikina ez zegoen horretarako prestatuta".

**"FUNTZIONATZEN GENUENAREN FROGAK BAGENITUEN. HORREK KONFIANTZA SORTZEN DU. HALA IZAN DA"**

San Martin kaleko eraikinean 16-17 urte egin dituzte, "baina ikusten genuen hori bukatzeare zegoela". Pikuxar proiektuarekin zer egin erabakitzeke hausnarketa egin zuten 2016ko udan: "hemen bukatu, bertan behera utzi, polita izan da. Edo aurrera egin". Proiektuan sinisten zuen talde bat elkartu zen eta aurrera egiteko saiakera "serioa eta zentzuzkoa" egitea erabaki zuen. Uda hartan bertan hasi ziren herriko etxe zaharrak begiratzen, zeuden aukerak aztertzeke. Sei edo zazpi etxe ikusi zituzten.

Ikusi zuten aurrenekoa gaur egungo Pikuxar izan zen, haien begikoa bihurtu zena: "erdian zegoelako eta plaza egiteko aukera zuelako. Hau zen gure proiektua goraino eramane zezakeen eraikina" Lizarragak azaldu duenez. Aukera guztien artean "alde handiz, garestiena" zen, "baina ausartak gara. Eta hala gara gure artean konfiantza handia dugulako eta horrek laguntzen du. Bagenekien hemen sartuz gero batzuk ez ginela jarriko beste aldera begira". Konfiantza hori aurreko eraikinean emandako denborak eman zuela dio Lizarragak, gauza ugari antolatu baitituzte handik. "Funtzionatzen genuenaren frogak bagenituen. Horrek ezinbesteko konfiantza sortzen du. Eta hala izan zen".

Egitasmoa aurrera ateratzeko, etxea erosteko, proiektura bazkide berriak erakartzea ere lortu dute. Nahi beste bazkide ez zituzten izan beti "eta momentu batzuetan zalantzak sortu zitzaizkigun" aitortu du Lizarragak. Baina lanak aurrera egin ahala "jendea gehiago hurbildu zaigu". 90 bazkide ingurutik 119rako saltoa egin dute. "Ongi etorria izanen da heldu den jende guztia".

**Edukia**

Lizarragak argi utzi duenez, "Pikuxar proiektua eraikin bat baino askoz gehiago da, hasieratik". Egindako hausnarketan jaso zuten, bazkideei zerbitzua emateaz gain, Pikuxar euskal txokoa "herriarendako baliabide bat da". Proiektuaren ardatza "Irurtzunen euskara bulkatzea da. Tabernari lehen hitza beti euskaraz eginen dute. Hau izanen da Irurtzunen euskaraz hitz egiteko plaza". Lehen solairuan elkarte dago, baina ganboiko osoa hutsik utzi dute. "Leku oso erakargarria da edozer gauza egiteko. Eta plazak, begi bistakoa da aukera

ematen duela". Edozer ekitaldi antolatzeke aukera ikusten dute Pikukideek, "eta, noski, asmoak baditugu".

Euskalgintza, kulturgintza eta herrigintza ardatzak "ongi markatuak" ditu Pikuxarrek. Horiek "beti bezala" garatuko dituzte, "baina orain aukera ematen duten" espazioak dituzte, baita "baliabide oso onak ere. Lehen oso mugatuta genituen, txikia eta deserosoa zen. Hari etekina atera genion eta honi horren beste eta gehiago", Lizarragaren esanetan; "gogotsu gaude, eta eginen dira".

**Elkartea**

Taberna astelehenean zabaldu ondoren, "zenbait gauza faltako badira ere", elkarte hamabost bat egun barru, garilean, irekia egotea espero du Lizarragak. Bazkideak elkarte erabiltzeko irrikitan daude, baina oraindik ez dute hura hartzeko zerrendarik zabaldu. "Sukalde handia egin dugu. Denondako tokia dago eta antolatuko gara".

Mustutze ekitaldia egitea ere aurreikusia dute Pikukideek. Uda pasa ondoren, COVID-19 gaitzak eragindako pandemia lasaiago egotea espero dute, "festa on bat egiteko. Hainbat kultur eragile gurekin zerbait polita egiteko deika ditugu". Iraila aldera litzateke. Asteleheneko irekieran bezala, etorriko den mustutze ospakizunean ere Pikukide askoren gogoan hildako Oskar Lizarraga Garziandia izanen da. Haren anaiak aitortu duenez, "irekierak gazi-gozotik du... Anaiaren falta. Bere hondea makinarekin itsatsia zegoen eraikin guztia bota zuen. Lan asko egin zuen. Guretako pertsona garrantzitsua zen. Gure artean ez dago. Bere oroitzapena dugu, bere barreak... Horrelakoa da bizitza. Aurrera jarraitu behar. Eta berarengatik ere, noski".

**BIDEOA:**

Ezagutu ezazu Pikuxar berria barrutik.



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Hexagonotik amorruruz

Hizkuntza gutxituen garapenaren aldeko Molac legeak oso fite ukan du arrapostu hiratua Frantziako Konstituzio Kontseiluan, eta Asanblada Nazionalen "galdu" zutena toga jakobinoen artean aisa irabazi dute murgiltze ereduaren aldeko xedapenak bertan behera utzirik.

Bretoinera, Katalan, Alsaziera, Euskara edo Okzitanieraren alde azken hogeita hamar, berrogei urte honetan eginiko ahalegin sakon, irudimentsu eta zabalak ezinezkoa zirudien legezko aldaketa bat ahalbidetu du, eta bitxia bada ere Front National-ean izan ezik gainerako alderdi guztietan (baita komunisten artean ere!) aldeko disidenteak ukan ditu ekimenak. Hortaz, ez da soilik nazioetako abertzaleen bultzadaz etorri, konplizitate abegikor baten saio luze eta tenkor baten ondorioz.

Baina, o là là, herensuge frantximanta itzarri zen eta "chauvinisme" ariketa merke eta narras batez, afera lehengora ekarri du, murgiltze irakaskuntza jite alegalera, ilegalera ez bada, itzuli du eta orain porru patata hau Macronen jaunarendako da.

## HERRI TXIKIEN HIZKUNTZEN ALDEKO LANAK AITZINA DARRAI ETA FRUITUAK EMATEN ARI DA

alderako jarrera zabalxeagoa zeukala, eta horra, behaztopa harritzarra! Zaplasteko judizialaren aitzakian, Frantziako hizkuntzak "altxorra" direla adierazi du, eta aurrerantzean atarabide bat bilatu beharko dutela erantsi.

Legeak lege eta jakobinismoak jakobinismo, herri txikien hizkuntzen aldeko lanak aitzina darrai eta fruituak ematen ari da. Ondorengo hilabeteetan ikusiko dugu aferak zein bide hartzen duen.

Bitartean Seaska, Calandreta, Bressols, Diwan... atxik eta beti aitzina!!!

Republique-ko presidentea, nabarmendu da, besteak beste, inperialismoaren aurreko jarrera kritikorengatik, inperialismoa gizateriaren historiako gaitzik handienetakoa dela esateraino. Bergisan, bazirudien bertako hizkuntza eta kulturen

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Erasorik gabeko oporrak

#### SAKANAKO ETA ALTSASUKO BERDINTASUN ZERBITZUAK

Sakanako gazte horri:

Berehala hasiko da uda eta, egungo egoera egonda ere, oporrez, aisialdiaz eta lasaitasunaz lagunekin gozatuko duzu. Ongi pasatzeaz gain, zure konpromisoa behar dugu, gizarteak behar du, neska gazteek behar dute: eraso sexistarik gabeko uda egiteko konpromisoa. Ez da kanpaina bat, eskatutako jokaera, portaera bat baizik.

Emakumeen eta nesken kontrako biolentzia ez da naturak eragindako "gaixotasun soziala" ezta konpondu ezinezko buruhaustea ere, denok mantentzen dugun sistema

sozial baten ondorio baizik, eta hankaz gora jartzen ez dugun bitartean, zerbait kontra egiten ez dugun bitartean, eraso handiak eta ez hain handiak normalizatzen eta sendotzen dira gure artean. Zuen artean ere, zuen kuadrilletan ere!

Denok dakigu gure inguruan ez dugula berdintasunarekin bat ez datorren inor aurkituko. Baina adostasun hori askotan diskurtsoan soilik geratzen da eta ez du benetako aldaketa eragiten. Gizarte osoak berdintasuna lortzeko bere asmoa argi eta garbi aztertu behar du, dudarik ez, baina honetan zuri eskatzen dizugu:

- Begirune faltak, irainak, mespretxuak ez onartzeko eta

publikoki taldean adierazteko.

- Indarkeria-kasuak errefusatzeko eta erasotzailea baztertzeko (nahiz eta zure kuadrillakoa izan, hau da zailena!)

- Neskak jazartzeko sare sozialak ez erabiltzeko.
- 'Ez' esaten dizutenean, onartzeko eta agian/ezkutuan 'bai' dela ez pentsatzeko.

- Bikote harremanetan, kontrola izatea nahi ez izateko.
- Jeloskortasuna sentitzean, zergatik ote den hausnartzeko.

- Jarrera egokia izateko neskek beldurrik izan ez dezaten kalean ibili edo etxeetara bueltatzean.

Eta, nola ez, neskei ere deitzen diegu hauetako helburu batzuk lortzera eta, batez ere, laguntza sarea egitera, neska guztiak nahi duten moduan jokatzeko eta aske izateko.

## GUTUNA

### Quo Vadis, Olazti?

#### ANA ESTHER GIL ANDUEZA ETA MAITE ZABALA DUHAU

OLAZTIKO UDALEKO LABEKO DELEGATUAK

Hamaika ikusteko jaiok garela jakin badakigu, baina Olaztiko Udalak berriki egindakoak fikzio ankerrena gainditzen duela argi dago.

Ez al da EH Bildu justizia sozialaren defendatzailea? Ez al du EH Bildu bere oinarrien artean elkarrizketa eta negoziazioa? Ez da, akaso EH Bildu gizarte honetako ahulen defendatzailea? Ez al da Administrazioa, kasu honetan Udala, bere herritarren eskubide betetzearen bermea?

Gauzak horrela, nola gauzatu dezake Olaztiko alkateak, EH Bilduren gerizpean, horrelako

bidegabekeria, osasun arazoengatik lan gaitasuna galdu duen langile bat kale gorrian utziz? Benetan uste al du EH Bildu geratu zaion soldatarekin familia bat aurrera atera daitekeela? Are gehiago, nola sina dezake horrelakorik Olaztiko Udalaren Langileen hitzarmenean eskubide hori aitortuta dagoenean? Nola, 2017ko Hitzarmenaren negoziazioan, 35. artikulua aldatua izan zenean, horrelakoren bat gertatuz gero gaitasuna galdu duen langilearen birkokapena gauzatzeko konpromisoa EHBildu bere gain hartu zuenean?

Guzti hau nahikoa ez balitz, frogagarria da udala ez dela serioski saiatu langilea birkokatzen, baiezkoa etengabe esan arren, gero ez baitira ez eta

langilearen lan gaitasun hondarrekoa aztertzen hasi ere.

Denok dakigu une honetan Olaztiko Udalean Eduardok egin ditzakeen lan asko daudela, forma ematea besterik ez da falta.

Borondate kontua besterik ez da. Hasierako baiezkora hori egingarri bihurtu. Langileak berak bere aldetik prestutasun guztia adierazi dio udalari, bai lanen aldetik, bai ordutegiaren aldetik, baita helburua ere: lanaldi osoko soldata lortzea besterik ez.

Herriaren borondatea balizko "legaltasunaren" gaintik dago. Vizuete jauna, garaiz gaude, konpon ezazu sortutako kaltea, bete hitzarmena eta 2017an hartutako konpromisoa.

Eduardo birkokatu, bere eskubidea delako.

**guaixe**  
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Maidar Gabirondo Zelaia

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maidar Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trecet Obeso  
maketatzaia@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernua**



# Euskaldunen eskubide murrizketak salatzerara

Garilaren 2an, 18:30ean, Iruñeko Baluarte plazaatik abiatuko da Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako mobilizazioa. 'Euskaraz bizitzearen alde, batuz. Eskubide murrizketarik ez!' leloa izanen du manifestazioak

## SAKANA

Administrazioan euskararen erabilera arautzeko dekretua urtea despeditu aurretik tramitatu nahi du Nafarroako Gobernuak. Izan ere, foru erkidegoak 20 hilabete daramatza araudi hori gabe. Aurreko foru administrazioak onartutakoa Nafarroako Auzitegi Gorenak 2019ko lastailean edukiz hustu zuen. Edukiari dagokionez, Maria Chivite Navascues lehendakariak aurreratu duenez, euskara meritu gisa hartuko da eremu euskaldunean, eta eremu mistoan ere, "herritarrendako arreta postuetan, urtetan egin izan den bezala". Osasunbidean eremu mistoko herritarren arretarako irizpidea aplikatuko omen da, 11/1992ko legea oinarri hartuta. Eremu ez-euskaldunean, berriz, euskara ez da meritu gisa hartuko, horretarako "errealitate soziolinguistikoaren datuetan" oinarritu da Chivite. Haren arabera, administrazioko sarbide probetan euskara meritutzat hartzearen inguruko eztabaida hizkuntza politikaren "ikuspegi murriztailea" da, eta "mesede txikia egiten zaio euskarari arma politiko gisa" erabilita.

Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbao dekretu berriaren inguruan informazio zuzenik ez



AEK, IKA, Ikastolak, Sortzen, EHE eta Behatokiko ordezkariak. KONTSEILUA

dutela eta hedabideetara gobernuak egindako filtrazioak salatu ditu. Bilbaoren hitzetan, "argi dago, hizkuntza eskubideak alderdikieriekin nahastea dutela helburu". Kontseiluko bozemailearen iritziz, "dekretuaren eztabaida parametro desegokietara eraman nahi dute. Sinestarazi nahi digute dekretuaren korapiloa txikia dela, hain zuzen ere, legeak ezarritako eremu ez euskaldunean euskara ez baloratzea edota alemana bezala baloratu beharko den ebaztea". Bilbaok eztabaida parametro

egokietara eraman behar dela gatzigatu du: "onartu behar den dekretuak herritarren euskararen erabilera eroso bermatzeko balio duen ala ez aztertu behar da. Dekretu integrala behar dugu, are gehiago kontuan hartuta herritarrak diskriminatzen dituen legea dugula".

Manifestazioarekin "herritar guztien eskubideen bermea ahalbidetuko duen dekretua eskatu eta aldarrikatu" nahi ditu Kontseiluak. Bilbaoren arabera, "garaia da eskubide murrizketak ahalbidetuko dituen dekretuaren

## ETB3 ikusteko eskaera berria

Netflix Euskaraz eta Disney Plus Euskaraz taldeek, Tinko euskara elkarteak eta BIEUSE bikoizleen elkarteak hainbat aldarrikapenetan bat egin dute eta Pantailak Euskaraz sortu dute. Sortzaileek adierazi dutenez, "ikus-entzunezkoen mundu pantaila anitzean euskarak duen presentzia eskasarekin arduraturik gauden hainbat herri ekimen eta eragilek sortu dugun mugimendua da. Indarrak batuz, egoera hau irauli eta euskarazko etorkizun bat lortzeko helburua dugu. Herritarren babesarekin erakundeak mugiaraziko ditugu". Mugimenduak 10 puntuko aldarrikapena egin du eta haietako bat da "EITBren seinalea Euskal Herri osoan eta euskarri desberdinetan eskuragarri egotea". Hau da, ETB3 Sakanan ikusteko eskaerarekin bat egiten dute.

ETB3 gaur egun Iruñerriko behera ikusteko aukera dago, baina ez Mendialdean. Egoera hori zuzentzeko lanean ari da ETB3ren aldeko plataforma eta foru administrazioari egoera zuzentzeko eskatu dio. Hainbat sakandarrek eta ibarreko udalek haur eta gazteei zuzendutako ETBren kanala ikusteko eskaerarekin bat egiten dute.

aurka ozen eta sendo agertzeko. Eta, aldi berean, "Justiziaren, berdintasunaren eta kohesioaren aldeko aldarria egiteko".

## Soka luzea

Nafarroako Justizia Auzitegiak administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Dekretuaren hainbat artikulua baliogabetuz epaia eman zuen 2019ko lastailean. Ondorioz, Kontseiluak Gobernuari eskatu zion "Justizia, kohesioa eta berdintasuna ardatz dituen gizarte bat eraikitzeko pausoak eman eta ausardia izan zezala, eta bide horretan gutxienez, epaiari kasazio helegitea jar ziezaiola epaiarekin bat egiten ez zuela erakusteko". Orduan ere kalean salatzearekin batera, gobernuo kideei haien eskaeren berri eman zieten Kontseiluko kideek.

Gobernuak ez zuen helegiterik aurkeztu eta halako epaiak saihe-

teko lehenbailehen, 2020ko hasierarako dekretu berria onartuko zuela jakinarazi zuen Nafarroako Gobernuak. Pandemia eta gobernuo bi bazkideen arteko eztabaida tarteko, dekretuaren onarpena atzeratuz joan da. Orduan 20 hilabete pasatu dira eta tarte horretan foru administrazioak hainbat lan deialdi egin ditu. Eta horietan, Kontseiluaren arabera, "automatikoki baztertu du euskararen ezagutza, derrigorrezkoa edota merezimendukoa, ehunka lanpostuetan. Azken hilabeteetan honezkero ahaztutzat genuen hizkuntza politika iluna aplikatu dute behin eta berriro lanpostu publikoei dagokienez", gaineratu du Bilbaok. Chivitek jakinarazi duenez, zirriborroa despedituta, sindikatuei aurkeztuko diete, gero funtzio publikoko mahaian aurkeztu, eta ondoren gobernuak onartuko du.

EGUN ON SAKANA



GOIZERO 10:00-12:00 | ERREPIKAPENAK 14:00

08:30 NAFARROAKO ALBISTEAK  
EUSKALERRIA IRRATIAREN ESKUTIK

10:00 PRENTSA ETA EGURALDIA

10:15 BATETI BESTIA

10:20 EGUNEKO ALBISTEAK

10:45 HIZKETAN

11:15 SAREA: ARALAR ETA KARRAPE IRRATIKOEKIN

11:55 AGURRA

beleixe

107.3 FM  
ONLINE WWW.GUAIXE.EUS

# Oinezkoendako herria, helburu hori du udalak

Ibilgailuen abiadura murrizteko hainbat neurri hartzen ari da udala: seinaleak jarri, goratutako zebra-bideak egin, kaleetan goratutako oztopoak jartzea. Hiru kaletan sareak eta zoladura berritzeko lanak udan hasiko dira

ZIORDIA

Ibilgailuen gehienezko abiadura herrian 30 kilometro orduko dela gogorarazten dien seinalea argiduna dago Ziordia sarreran. Telleria kalean halako beste seinale bat jartzeko asmoa du Ziardiko Udalak, Olatzagutiarekin lotzen duen dermioko bidetik heldu diren ibilgailuen gidariei abiadura murriztu behar dutela gogorarazteko. Eta helburu horrekin neurri gehiago hartuko dituztela jakinarazi du Olatz Irizar Martinez alkateak. Esaterako, kaleetan goratutako zebra-bideak edo abiadura murrizteko goratutako oztopoak jarriko dituzte.

Aurreko urteetan ere ibilgailuen abiadura murrizteko hainbat neurri hartu ditu udalak. Horren lekuko dira joan den urtean plaza inguruan jarritako seinalea haurren presentzia gogorarazten duena edo Dona Maria kalean egindako azken lanekin egindako zebra-bide goratua. Irizarrek



Abiadura muga ezarria dago herrian.

azaldu duenez, "jendea oso azkar dabil herritik, eta hori guztia abiadura murrizteko egiten dugu. Gure helburua herria oinezkoena izatea da, eta ez ibilgailuena. Ea gutxika lortzen dugun". Aurretik jarritako seinale berriak 2.000

euro inguru balio dutela jakinarazi du.

Bestetik, Ziordiko Udalak herria garbi mantentzeko herriko zortzi tokitan paperontziak jarri ditu. Alkateak azaldu duenez, "ez genuen paperontzirik". Eta launaka jarri dituzte, "gure helburua jendeak hondakinen sailkapen egokia egitea da, horregatik, hondakin mota bakoitzarendako paperontzi bana dago zortzi puntu horietan. Paperontziek dagokien hondakinaren kolorea dute, oso bisualak dira eta pedagogia lana egiteko balio dute".

Herriko hiru kaletan azpiegiturak berrituko dira aurretik: Dona Luzia kaleko 21 eta 58 zenbakien artean, Dona Maria kalearen 9 eta 29 zenbakien artean eta Miraria kalearen 12 eta 16 zenbakien artean. Sareak eta zoladura berritzeko lanak udan hasiko dira. Haiiek despeditzen dituztenean ere paperontzi laukoteak jarriko dituztela gazti-gatu du.

# Materia organikoa ongarri bihurtzen

Etxean sortzen dugun materia organikoa konpost bihurtu dadin beharrezkoa da ongi bereiztea eta dagokion edukiontzian botatzea. Konpost bihurtuta baratzeak aberastuko ditu eta zikloa itxiko dugu

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Materia organikoak Sakanan egiten duen bidaia ezagutuko dugu Amaia Okariz Ormaetxearen eskutik. Bera Sakanako Mankomunitateko Hondakin Bilketa Zerbitzuko hezitzailea da. Okarizek nabarmendu duen aurrena da: "gure esku dagoela sortzen dugun materia organiko kantitatea gutxitzea". Hezitzaileak azaldu duenez, "Nazio Batuen Erakundeak bildutako datuen arabera, gaur egun munduan sortzen diren elikagaien heren bat galdu edo xahutu egiten da. Frutaren eta barazkien kasuan %45eko galera izatera iristen gara".

Beste datu bat ere eman du Okarizek: "Trantsizio Ekologikorako Ministerioak Nafarroarako egindako estimazioen arabera 115.000 elikagai tona baino gehiago hondakin bihurtzen dira, horietatik %42 etxeetan xahutzen ditugu". Bestela esanda, "Nafarroan, eta Sakanan ere, erosketan planifikazio falta, gaizki gorde eta kontsumitu, edota gehiegizko errazioak prestatzearen ondorioz, biztanle bakoitzak hondatu gabeko 75 kilo janari botatzen ditu, batez beste, urtero".

Jatekoak alferrik ez galtzeko eta ez botatzeko, azken batean hobetzeko, kontuan hartu beharreko aholkuak zerrendatu ditu hezitzaileak: asteko menua aurreikusitu, erosketan arduratsua egin, garaiko produktuak erosi,

elikagaiak ongi kontserbatu, soberakinak erabiltzeko erreze-tak egin eta jatetxeetan soberan uzten dena etxera eramateko prestatzea eskatu.

**Berezitu, konposta sortzeko**

Okarizek azaldu duenez, "etxean ezinbesteko materia organikoa bakarrik sortu beharko genuke eta birziklatu ahal izateko ongi sailkatu behar dugu, bere bilke-

## 100.000 kilo konpost

Urte hasieratik hilaren 11ko 09:05 arte Utzubar EKO Gunean sakandarren artean banatutako konpost kiloak dira. Okarizek nabarmendu duenez, "azkar esaten da, baina 100.000 konpost kilo horiek bizilagunen artean banatu ahal izatea materia organikoa ongi berezitu duten sakandarroi eta Mank-ek ematen duen Hondakin Zerbitzuari esker izan da". Horregatik, dei egin du guztion artean "hondakinen kudeaketa hobetzen" segitzeko eta materia organikoak azaldutako "bidaia egiten laguntzeko".

## Burunda mendebaldean 1.100 txerto jarri dituzte aste honetan

50 eta 54 urteen artekoen txertaketa bukatu da eta 40 eta 44 urte artekoena hasi da

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Txertaketa gune bihurtu zen atzera ere Burunda pilotaleku altsasuara astelehen eta asteartean. Aurreneko egunean 50 eta 54 urte arteko 550 altsasuar, olatzagutiari eta ziordiarrei COVID-19 gaitzaren kontrako bigarren txertoa jarri zien Osasunbideak. Nafarroako Osasun Zerbitzuaren txertaketa norabideari segituz, asteartean mendebaldeko burundarren 40 eta 44 urte artekoen txanda izan zen. Txertoaren aurreneko dosia jaso zuten 600 burundarrek.




Txertoa jartzen. ARTXIBOA

Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Osasunbideak, aste honetan Nafarroan, guztira, 52.075 txerto jartzeko asmoa zuen. Joan den asteburuan Tuterako Osasun Barrutian hasi ondoren, herrialdeko gainerako eremuetara zabaldu da 30-39 urte bitarteko txertaketa.

Garagartzaroaren 1etik herenegunera arte 55 COVID-19 kasu positibo zenbatu dira Sakanan: Uharte Arakilen 18, Altsasun 15, Etxarri Aranatzan 10, Lakuntzan 9 eta Arbizon, Bakaikun eta Olatzagutian bana. Aurreko astearekin alderatuta azken astean kuxatzen kasuak erdira pasa dira. Izan ere, joan den ostegunetik herenegun arte 5 kasu zenbatu ditu Osasunbideak ibarreen: 2 Lakuntzan eta bana Arbizon, Etxarri Aranatzan eta Altsasun.





ta berezitua egin ahal izateko". Arbizon dagoen Utzubar EKO Gunean aurten mustuden konpost plantarekin zikloa itxi eta Sakanan bildutako materia organikoa ibarrean bertan konpost bihurtzen da.

Mank-ek materia organikoa biltzeko hainbat sistema ditu ezarrita. "Aukeran konposta etxean edo auzoan egin daiteke, edo biltzaileek eramateko atez ateko posteetara atera edo 5. edukiontzi marroira bota", azaldu du hezitzaileak. Adierazi duenez, "lur sail edo baratza duen edonork etxean konposta egin nahi badu, Hondakin Zerbitzuan konpostagailua eskatu dezake, bertan materia organikoa konpost bihurtzeko. Halako kasuetan materia organikoak bidaia laburra egiten du sukaldetik etxeko baratzean dagoen konposteraraino".

#### Bilketa sistemak

Arakil, Irañeta, Arruazu, Ergoien, Lizarragabengoa eta Ziordian orain dela gutxira arte edukiontzien ekarpen etxolen ondoan auzo konpostagailuak zituzten, han materia organikoa bota eta auzokonposta egiteko. "Konfinamendu garaiaz geroztik haien mantenua egiten zuten langileak bilketa lanetan dabilta eta, beraz, konpostagailuak erabiltzeari uzteko ekarpen etxoletan edukiontzi marroia jarri zen, bertan materia organikoa botatzeko", azaldu du Okarizek, gaineratuz, "hemendik aurrera materia or-

ganikoaren bilketa bermatzeko edukiontzi horiek mantendu egingen dira eta auzo konpostagailuak kendu egingen dira".

Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutian atez ateko sisteman dago. Hezitzaileak gaztigatu duenez, zortzi herrietan "auzo konpostagailuak bazeuden, baina mantenua ezin eginagatik itxita gelditu ziren. Geroztik materia organikoa posteetan biltzen ari da". Auzo konpostagailuak itxita daude herri horietan, baina "auzokideek mantenu lanak beraien gain hartuz gero, auzo konpostagailuak bertan mantenduko lirake. Boluntariorik ez balego auzo konpostagailuak kendu eta materia organikoa astelehenetan eta ostegunetan posteetan biltzeko ateratzen jarraitu beharko da" esan du Okarizek, zehaztuz: "materia organikoa Mank-ek ematen duen kuboan atera behar da bilketa puntuak garbi mantentzeko. Poltsatan ateratzen denean, askotan apurtu egiten dira, bilketa puntuak zikinduz". Inork kuboak behar izanez gero Arbizuko Utzubar EKO Gunera joan behar da eskuratzerara. Harrera ordutegia astelehenetik ostiralera da, 09:00etatik 14:30era. Bestalde, Lakuntzako eta Ziordiko udalek Mank-ekin batera hartutako erabakiaren ondorioz, auzo konpostagailuak kendu egin dituzte. Lakuntzarren kasuan materia organikoa posteetara

atera behar dute eta ziordiarrek 5. edukiontzian sartu.

#### Altsasu eta Irurtzun

Materia organikoa edukiontzi marroian jasotzen da 2018. urteaz geroztik. "Giltzapetutako edukiontzia da, materia organikoa ongi bereizten dutenek erabiltzeko", azaldu du Okarizek. Gaur egun altsasuarren %26 inguruk bakarrik izena emana du edukiontzi marroia erabiltzeko. "Horrek esan nahi du errefusuan (edukiontzi berdean) biltzen denaren ia erdia (%40 inguru) materia organikoa dela. Ondorioz, eta zoritxarrez, milaka eta milaka tona hondakin Tuterako El Culebrete zabortegira bidaltzen jarraitzen dugu", aditzera eman du hezitzaileak.

Horregatik, "altsasuar bakoitzaren esku dago materia organikoaren bidaia laburtzea. Edukiontzi marroia erabiliz gero, materia organikoa kamioiek bildu eta Arbizuko konpost plantan ongarri bihurtuko baita. Horregatik, hobetze bide honetan, edukiontzi marroia erabiltzera" gonbidatu du Okarizek. Edukiontzi marroia erabiltzen hasi nahi dutenek 900 730 450 doako telefonora hots egin behar dute, izena eman eta materia organikoa bereizteko kit-a emanen diete: 10 litroko kubo aireztatua, poltsa konpostagarriak, birziklapen gida eta edukiontzi marroia irekitzeko giltza. Pol-

tsa konpostagarriak edota giltza berria behar izanez gero, eskuragai egoten dira Altsasuko Garbigune Finkoan, baita Garbigune Mugikorrean ere.

Altsasun Otadian eta Idertzagainen auzo konpostagailu bana dago. "Itxita egon dira baina laster hobekuntza batzuk egitea aurreikusita dago berriro martxan jartzeko asmoz. Irurtzunen bezala giltzapetuta daude eta giltza mankomunitatean eskuratu ahal da martxan jartzen direnean".

### Zer da materia organikoa?

Fruta eta barazki azalak, lekale, pasta eta arroz hondakinak, fruitu lehor azalak, arrautza oskolak, haragi, arrain eta marisko hondarrak, gazta azala, kortxo naturalezko tapoiak, txotxak, egurrezko makil txikiak, janari hondarrez zikindutako papera, sukaldeko papera, erabilitako ezpain zapi txuriak, madalenen papera, erabilitako paperezko mukizapiak, kafe hondarrak, iragazkiak, infusio hondarrak edota poltsatxoak, ogi eta opil hondarrak.

Irurtzunen materia organikoa bereizteko, oraingoz, auzo konpostaren aldeko apustua egin da. Auzo konpostagailua erabili nahi duenak, bere auzoko konpostagailuko giltza eskura dezake Mank-en. "Bertan materia organikoa bota eta eskuragai egoten den egituratzailearekin estaltzea komeni da, konpost prozesua ongi joan dadin" gogorarazi du hezitzaileak. Nabarmendu duenez, "Irurtzunen auzo konpostagailuen kudeaketa eredu izan da, bakoitzean boluntario bana baitago hasieratik eta oso kalitate oneko organikoa botatzen baita". Hala ere, irurtzundarren %24,86ak bereizten du organikoa, eta, beraz, "ezinbestekoa da herritar gehiago organikoa bereizten hastea. Organikoa bereizten hasi nahi duten irurtzundarrek, behar den informazioa eta materiala eskuratzeko, 900 735 450 doako telefonora hots egitea besterik ez dute".

#### Konpost planta

Hondakin bilketako kamioiek Sakanan jasotako materia organiko guztia Arbizuko konpost plantara eramaten dute. Han ibarreko inausteak biltzen dituzte, txikitu eta konposta egiteko egituratzaile moduan erabiltzen dira. "Materia organikoa egituratzailearekin nahastu eta ilaratan jartzen da. Pila horiek aireztatpena behar dute. Naturan gertatzen den bezala, materia organikoa deskonposatuz joan da eta ura galduz, lur ilun batean, konpost, bihurtu arte". Okarizek adibidea eman du: "gutxi gorabehera sei hilabeteren buruan, etxean bota genuen laranja azala, bidaia guztia egin ondoren, konpost bihurtuta, bahetik pasa eta lur xehe xehe bilakatuta egonen da".

Utzubar EKO Gunean sortutako konposta sakandarren artean banatzen da, baldin eta Hondakin Zerbitzuan alta emana badago. Sakandar bakoitzak urteko bost zaku hartzeko aukera du, hiru zaku udaberrian eta bi udazkenean. "Horretarako zakuak etetik ekar daitezke. Zakurik ez izatekotan, Mank-ek Piensoz Unamunok gordetzen dizkigun zakuak berrerabiltzen ditugu. Bulegoan izena eman eta hezitzaileak bideratuko zaituztegu konposta non hartu behar den jakiteko".



Langileak aldarrikapenak enpresara eramaten. ARTXIBOA

## Egun osoko greba egitera deitu dituzte La Vasco Navarran

Astelehenean izanen da LABek eta CCOOk deitutako greba. Aldeen arteko hurbilketarik ez da izan

### OLATZAGUTIA

Enpresa batzordearen gehiengoa duten LABek eta CCOOk deituta, lan uzteak egiten ari dira La Vasco Navarra enpresako langileak. Lan baldintzak hobetu nahi dituzte, besteak beste: Aldi Baterako Lan Enpresen bidez egindako kontratazioak salbuespena izatea, soldataren kontzeptu guztietan igoera, soldata arrakala ezabatzea edota lan kategorien eta lanpostuen ikerketa egitea. Horrekin batera, enpresako lan hitzarmena eskatzen ari dira. Astelehen eta ostegunetan lan txanda bakoitzean bi

orduko lanuzteak egiten ari dira: 12:00etatik 14:00etara, 14:00etatik 16:00etara eta 22:00etatik 24:00etara. Euren aldarrikapenak zuzendaritzari ozenago helarazteko LABek eta CCOOk langileak astelehenean greba egitera deitu dituzte.

LABetik azaldu dutenez, protestan ari diren langileen eta zuzendaritzaren artean ez da harremanik izan aste honetan. Bestalde, enpresa batzordean dauden eta protesta deialdiarekin bat egin ez dute ELA eta UGT sindikatuen jarrera bera dela gaztigatu dute.

### DUELA 25 URTE...



## Etxarri Aranazko kanpina zabaldu zen

Berrikuntza lanak egiteko udalak 18 milioi pezetako (108.182,2 euro) inbertsioa egin ondoren, igerilekuak garagarrilaren 29an zabaldu zituzten. Eta, aldi berean, haren ondoan dagoen kanpina mustu zuten. Kanpatzeko tokiez aparte 60 pertsonarendako aterpetxea eta autokarabandako 27 plaza zituen. Guztira 250 pertsona sartzen ziren kanpinean. Harrera, sutarako tokia, haurrendako parkea eta komunak ere bazituen. Kanpinaren kudeatzailea Floren Vicente olaztiarra zen.



Jonan eta Julenen etxeratzea aldarrikatu zuten ostiralean egindako azken kontzentrazioetan. ARTXIBOA

# Jonan eta Julenek kartzela utzi dute

Asteartean hirugarren gradua eman zieten eta ez ziren espetxera bueltatu. Gainontzeko auzipetuen modura kontrol telematikoa ezarri diete. Auzia Giza Eskubideen Europako Epaitegian dago gaur egun

### ALFREDO

Altsasuko auziagatik kartzela zapaldu duten azken bi presoak izan dira Jonan eta Julen. Zabalako kartzelako Tratamendu Batzordeak gradu aldaketaren aldeko txostena eman zuen maiatzean eta Espainiako Espetxe Zaintzako Idazkaritza Nagusiak hura berretsi zuen asteartean. Egun horretatik ez dute kartzela zapaldu beharrik. Auzipetuen artean Ainara da ezarritako zigorra bete duen bakarra (urte eta erdikoa, ez zuten kartzelan sartu baina hainbat kontrol neurri ezarri zizkieten), gainontzekoak egoera berean daude orain, katean, baina kontrol telematikoarekin eta hainbat gauza egiteko mugarekin.

Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako epaileak Jonan eta Juleni 100.2 artikulua malgutasun printzipioagatik lanera eta ikastera ateratzeko baimena onartu zien eta abenduaren 2an gauzatu zen. Orduetik biek astegunetan 22:00etatik 07:00etara

kartzelan lo egin dute eta aste-buruak preso eman dituzte.

### Zigorrez

Jonani eta Juleni zazpi urte eta erdiko zigorra ezarri zieten. Bitan atxilotu eta bitan sartu zituzten kartzelan: 2016ko azaroaren 14tik eta abenduaren 20ra arte egon ziren preso. 2018ko garagarrilaren 5ean atxilotu zituzten atzera ere. Gaur 1.150 egun egin dituzte zigorpean. Zigorra 2025eko lastailan bukatuko da.

Iñaki eta Aratz ere bitan atxilotu zituzten eta, beraz, egun kopuru bera daramate zigorpean. Aratzek lau urte eta bi hilabetezko zigorra du, eta hura 2022ko garagarrilean despedituko du. Iñakik, berriz, hiru urte eta er-

diko zigorra du, lastailan beteko duena. Biek 598 egun egin zituzten preso. Bestalde, Adur, Jokin eta Oihane 1.319 egun egon ziren preso. 1.683 egun egin dituzte zigorpean. Oihane berderatzi urte eta erdiko zigorra du eta Adurrek eta Jokinek, berriz, zortzi urte eta erdiko zigorra dute. Hirurek 2024ko maiatzean beteko dute zigorra. Izan ere, delitu batengatik baino gehiagotatik zigortu zituzten hirurak. Epaian jasotzen denez, zigor handiena duen delituaren hirukoitzaren bete behar dute kartzelan. Epaia arabera hiruen delitu handiena agintearen agentearen kontrakoa da, bi urte eta erdiko espetxe zigorra duena. Beraz, horren hirukoitza bete behar dute, hau da, zazpi urte eta erdi. Eta, ondorioz, hiruen zigorra aldi berean bukatuko da. Bestalde, soinean duten kontrol telematikoaz aparte, Aratz, Iñaki, Adur, Jokin eta Oihane astean lau egunetan etxean zortzi ordu egon behar dute.

**2024KO MAIATZEAN BUKATUKO DUTE ZIGORRAK BETETZEAZ ALTSASUKO AZKEN AUZIPETUEK**



## Irurtzongo Montiko parkeko makinak berrituta

Irurtzongo Udalak Montiko parkean ariketa fisikoa egiteko bederatzi makinak berritu ditu (2.700 euro). Gainera, parkea argiztatu du (1.800 euro). Horrela irurtzundarrek ariketa fisikoa lasaiago eta denbora gehiagoan egin dezakete. Bestalde, lorentzi berriak jarri ditu erdigunean herria atseginagoa egiteko. Horretara 3.200 euro bideratu ditu.

## Iturmendiko Udalak etxeo surako epaitzak banatu ditu


Iturmendin ohitura da San Joan bezperan udalak etxerako epaitzen zozketa egitea. Festak pasa arte ez dute herrira ekartzetik, baina urtea despeditu aurretik herrian egon behar du. Zozketa ostiralean egin zuen udalak. 5.000 kilo inguruko 31 lote banatu zituen udalak (hainbat haizeak botatakoak dira) eta bakoitzagatik 20 euro kobratu zituen.

# Auzolan segida etxebizitzak egokitze

Kontzeju etxeak elkarte gainean egin nahi dituen bi apartamentuetako lanak unanuarrek egiten ari dira. Haiek alokatzeko interesa azaldu duenik bada dagoeneko. Bestetik Beriaingo pistako eta kontsultategiko lanak despeditu ditu

UNANU

Dagoeneko unanuarrek makina bat lan egin dituzte auzolanean Denok Bat elkarte gaineke solairuan. Unanuko Kontzejuak 135 metro karratuko azalera du eta han bi apartamentu egiteko lanak egiten ari dira auzolanean. Uda-berri hasieratik ari dira horretan. "Jendea ahal duenean etortzen da" eta haiei "esker ona" azaldu die Jesus Mari Balda Mercero, kontzejuko presidentea. Esan duenez, "lanak aurten despeditu nahi ditugu, baina opor garairekin gauzak geldituko dira, materiala lortzea zailagoa baita". 2019an sarbideko eskailera berritu zuten, hura ere auzolanean.



Lanak egiteko aldamioz inguratu dute etxe guztia. ARTXIBOA

Lanak despeditu ez badituzte ere, dagoeneko apartamentuak alokatzeko interesa duten pertsonak galdezka joan zaizkie. "Badirudi pandemiarekin jendeak herrietarako joera hartu duela, lasai egoteko". Batzuk asteburutarako nahi lukete. Baina gazte unanuarrek herrian gelditzeko edota familiak han errotzeko bidea ere izan daitezke apartamentuak. Haiek alokairuan eman ondoren etxebizitzaren egoeraren inguruan zein panorama duten aztertuko dute unanuarrek, zer egin dezaketen ikusteko.

Bestalde, Unanuko Kontzejuak Beriainerako pistako lehen zatia konpondu du. Herriaren eta ur biltegiaren arteko 72 metro izan ziren. Baldak azaldu duenez, heldu den urtean, dirua izanez gero, beste zati bat berrituko dute. Bidean gora, herritik 380 metrora, langa dago eta haraino porlanez tatu nahi du bidea kontzejuak, euria egiten duenean, urak bidean kalterik ez egiteko. Azkenik, Unanuko Kontzejuak mediku kontsultategiko leihoak aldatu egin ditu eta barruan pellet-a erregai gisa erabiltzen duen berogailua jarri du.

## Zelandiko patioko lanak garilarekin batera hasiko dira

Udalak merkataritza plana egiteko lanak eta basogintza aholkularitza ardurak eman ditu ere

ALTSASU

Euria egiten duenean putzuak sortzen dira Zelandi eskolako patioan. Euri ura jasotzeko kanalizazioak egin eta patioaren urbanizazioa egokituko ditu Apezetxea Anaiak enpresak.

Garilean hasiko dira lanean eta bi hilabete izanen dituzte egitekoak despeditzeko. Lanen truke Altsasuko Udalak 147.232,60 (BEZ kanpo) pagatuko dizkio enpresari. Lanak finantzatzeko udalak foru administrazioaren 236.000

euroko dirulaguntza du, Nafarroako aurrekontuan Geroa Bairen zuzenketa bat tarteko.

Udalak Merkataritza Erakartzeko eta Antolatzeke Plana idazteko kontratua Ikei Research & Consultancy enpresari eman dio. Lanaren helburua da herrian txikizkako merkataritzari eusten laguntzea eta Altsasuko merkataritza jardueraren hazkunde harmoniatsua bultzatzea. Gainera, merkataritza eskaintza eta formatuak berdintasunez eta aniztasunez eskuratzea. Udalak



Patioa itxuraldatuko dute lanek.

8.644 euro (BEZ kanpo) pagatuko ditu, baina %80ko dirulaguntza du. Bestetik, Lur Geroa enpresa izanen da udalari basogintza arloan laguntza tekniko eman diona. Urte baterako kontratua sinatu du, baina bost urtera arte luza daiteke. Aldi berean Haize Berriak bandari 15.000 euro ematea erabaki du. Azkenik, udalak ur kontagailuen irakurketa enpresa baten bidez egitea erabaki du eta enpresa bat kontratatzeke deialdia egin du, 62.040 euroekin (BEZ kanpo) hornituta.

**Txalaparta**

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

**Taberna**

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

Zure edari banatzailea!

**Hijos de Goikoetxea**

Tel. 948 467 317 - 696 979 279 - Geltoki auzoa 11 - ALTSASU

**BILTOKI**

TABERNA • JATETKEA

Eguneko menua 11€

Menu berezia 15€

Telefono berria: 948 562 348 • Altsasu

## KOLABORAZIOA

## Nabarra, arabiera?

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Asko idatzi da toponimo nagusi edo koronimo honen jatorriari buruz. Asko eta ez oso zuzen, nire ustean behintzat, gehienetan eta ez dakit zein asmorekin baztertu den, edo berarekin ez ikusiarena egin bai gutxienez, dokumentazioaren arabera logikoena eta objektiboena ematen duen hipotesia. Eta gaur egun arteko dokumentazioa aztertu eta logika aplikaturik, hau da objektibo izanik, ziurtasunez baieztatu dezakegu Nabarra izena ez dela erabili inoiz musulmanak Iberiar penintsulara iritsi arte.

Nabarraren etimologia hizpide izan duten autore gehienek (Moret, Orpustan, Irigoien, Caro Baroja) "nava" edo "nabar" aipatzen dituzte koronimoaren osagai nagusi moduan, ados jartzen ez badira ere horien esanahian (mendi arteko zelaia, eremu menditsua, zelaitua...), funtsean gaztelaniaren akademiak dakarrenaren ildotik joaz: "nava Voz prerromana; cf. vasco *naba* 'tierra llana'." Bada, hala ere, beste zenbait (Garay, Mendiburu) "nabar" etimoari kolore edo itxura zentzua ematen diona -a mugatzailearekin osaturik: kolore arrea ("la parda"), itxura ugarikoa ("la variopinta").

Harrigarria bada ere, Euskaltzaindiko buru izan zen Manuel Lekuonaren hipotesia,

niretako objektiboena, oroitzapenen kutxan erabat ahazturik. Honek (1962), ondorengo jatorria proposatu zuen Nabarra koronimo edo toponimo nagusiarendako:

"(...) *en su día* (1953

"Toponimia riojana - Un préstamo del árabe") *lanzamos una hipótesis nueva, a base de una radical de tipo semítico, árabe-hebreo, nahar, en significación de 'río'. Nahar, naharra = río, ribera.*"

"Ibaia" edo "erribera", beraz, eta ibaiaren eremua adieraziko zuen. Egungo Nafarroako Erribera eta Erreniega-Elomendi lerrotik hegoaldeko lurrak bilduko litzuzke aipatu *naharra > nabarra* kontzeptuak, orduan. Hipotesi honen arabera, Nabarra izenaren eremuak ez zuen bere baitan egungo Nafarroa osoa biltzen, bere zati bat baizik: *Ebro, Arga, Aragón, Alhama* eta *Queiles* ibaiena.

Horrela dio Lekuona jaunak: "*Los Reyes de la primera dinastía fechaban sus Documentos, 'reinando en Navarra y en las Montañas'. Las montañas, por tanto, no eran Navarra.*"

Nabarra, orduan, Mendialdearekin kontrajartzen zuten erregeek beraiek. Mendialdeak erresumaren iparraldea ziren, baina denbora pasa ahala, hegoaldeko eremuaren izena Erresuma osora hedatu zen XII. mendean, Antso VI. arekin, "Rey de Navarra y de las Montañas" tituluari luze iritzirik, nonbait.



Honekin guztiarekin batera, gogoratu behar da musulmanak VIII. mendean hasieran sartu eta ia Penintsula osoa bereganatu zutela urte gutxiaren buruan, tartean egungo Nafarroako Erriberalde guztia eta eragin nabarmena izan zuten bertan denbora luzean. Eta noiz hasten da dokumentuetan agertzen "Navarra" izena? Musulmanak agertu baino lehen ez behintzat, orain arte ezagutzen ditugunen artean. Kristau elizaren buru zen Gregorio II.aren 717. urteko bulak, oniritzia eta baimena (garai hartan baldintza *sine qua non zena* halako "karguen" jabe izateko kristau eremuan) eman zion Garcia Ximenezi Nabarrako eta Baskoniako errege izan zedin, Urdiain eta Altsasu artean, basoan dagoen San Pedro ermitan izendatu zutenean, Rafael Carasatorreren blog-ean agertzen den dokumentuaren arabera: "*Año de setezientos y diez y siete a veinte de henero en*

*esta iglesia de San Pedro de la Balle de Burunda fue electo y unido por primer Rey de Navarra García Ximénez, y esta elección confirmó el mismo año el Papa Gregorio Segundo, como parece por su Bula, que la tiene la dicha Balle en su Archivo; fue redificada esta iglesia el año de mil seiscientos quarenta y siete.*"

"Rey de Navarra" jartzen du ermitaren atearen gainean, baina ez da ahaztu behar 1647. urtean herritu zutela ia erabat aipatu ermita eta ordurako "Reyno de Navarra" izena baino ez zen erabiltzen, bistan da.

Aipatu dudak bulak, argi eta garbi, eta ez behin edo bitan bakarrik, baizik eta bederatziz aldiz, ondorengo dakar: "... (*en/de/para/rei de Nabarra o Zeltiberia y Basconia...*) Ez dut bula osoa hemen agertuko luze samarra delako, baina bertan, gaizki ulertzeko aitzakiarik gabe, irakur daiteke bederatziz aldiz Garcia Ximenez ez zela soilik orduko Nabarrako errege, Baskoniakoa ere bazela. Eta, are gehiago, Nabarra edo Zeltiberia esaten du bederatziz aldiz, Nabarra kontzeptu edo izen berria izan balitz bezala eta Zeltiberia, aldiz, ordurarte gehiago erabilitako terminoa. Nabarra eta Baskonia bi eremu ezberdin ziren, beraz zalantzarik gabe, Manuel Lekuonak iradokitzen zuen moduan eta beranduago *Nabarrako Errege*, besterik gabe, izan zirenak baino lehen, Panplonako Errege ("Rey de Pamplona") eta *Nabarrako eta Mendialdeko Errege* ("Rey de Navarra y de las Montañas") izan ziren guztiak.

*Anales Regni Francorum* liburuan ere (R. Collins, 1985, 166) bereizi egiten dira *navarri* eta *pampilonenses* herriak.

Lehena, hegoaldeari erreferentzia eginez eta bigarrena Mendialdeari.

Sánchez Albornoz-ek (1976, *Vascos y navarros en su primera historia*, 285), antzeko bereizketa jaso zuen Carlomagno 778.ean Iruña suntsitu zuenekoaren harira, esanez azalpen zailekoa dela (bistan da ez zuela Lekuonaren hipotesia ezagutzen): "*Destruída Pamplona, subyugados los vascones españoles y también los navarros... Los francos distinguían por tanto grupos regionales diferentes en la Vasconia cispirenaica. (...) Los Anales Reales o Annales Laurissenses refieren que en 806 los navarros y los pamploneses volvieron a la obediencia de Carlomagno. De nuevo los analistas francos separan dos comunidades humanas distintas al sur del Pirineo.*"

Lekuonak, bestalde, nahar izena eta bere bilakabidea aztertu zituen eta nabarmendu zuen Errioxan eta Araban ere bazirela oinarri berekoak: **Nafarrate** ("Puerto de Navarra") Araban; **Navarrete** eta **Nahárruri** ("poblado de Naharros, hoy Casalarrina") Errioxan.

Jatorrizko arabierako /h/-tik erromantzeko /f/-rako bilakabidea (*nahar > nafar*) egiaztatu zuen ondoren bereziki, horrelako kasu gehiago ere bazirela ikusiz: *alhorí > alforin* (horreo), *alhauz > alfoz* (arrabal), *alhaba > alfaba* (lur zatia), *alhadia > alfadía* (iruzurra), *alhaquin > alfaquín* (mediku)...

Horrela beraz, arabierako jatorriko [h] (eztarriko aspiratua) erromantze edo gaztelaniako [f] (ezpainetako) bihurturik. Hemendik gainerako euskarazko aldagaietara (nabarra/naparra/nafarra, besta/pesta/festa, bake/bake/fake, bago/pago/fago...), arazorik gabe. Zer dela eta, orduan, Lekuonaren proposamenaren bazterketa? Izenaren arabierako jatorria ote arrazoia?

**Autoen aseguruak**

**MAPFRE**  
Tu aseguradora de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM  
948 563 354  
jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48 · ALTSASU

**Zure esperientziarik onena  
PREZIORIK ONENEAN**

**PORTUKO**  
okidenaja

Altsasu: 948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763

*Goxua,  
bi eguneko aurrerapenarekin eskatu*



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 25

**LAKUNTZA** Hortzmuga teatroren *Memoria eraikiz. Flores en el asfalto* antzezlana.  
19:00etan eta 20:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** *Los acordes de la memoria* Josefina Arregi klinikan oinarritutako film dokumentalaren emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ETXARRI ARANATZ** Azken ostirala: *Preso eta iheslariak etxera!*  
Etixerat elkarte eta Sare Herritarra.  
20:00etan, plazan.

**OLAZTI** Kultur 2021. Iñaki Diéguez hirukote akustikoa.  
20:00etan, Sarasate plazan.

## LARUNBATA 26

**ARBIZU** San Juanak 2021.

**Gazte eguna.**  
Arbizuko Gazte Asanbladak antolatuta.  
13:00 Paella lehiaketa.  
15:00 Bazkaiya eta bingoa.  
18:30 Guardiaya musikaki.  
19:00 'Ekintzek dute hitza, Arbizon euskas!' Kontzentrazioa.

**URDIAN** Lasterketa herrikoa ez lehiakorra:  
**IXI** punta igoera.  
09:00etan izena ematea;  
10:00etan, plazan.

**URBASA** Naturanitzean gozaten. Lo egitera mendira. Biziraupen tailerra.  
16 eta 18 urte bitarteko gazteendako. 10 km-tako ibilbidea. 25 euro.  
Ekainaren 26tik 27ra; 15:00etatik 13:00etara, informazio gunean.

**ARBIZU** Alaitzen: udako kultur egitaraua. Zirika Zirkus konpainiaren *Hemendikara* ikuskizuna.  
12:00etan, plazan.

**ALTSASU** *Itaia Gaitasunak* antolatuta aurkezpena.  
18:00etan, lortia kultur gunean.

**BAKAIKU** Beietz taldearen *Zeltik Parranda* tourreko kontzertua.  
19:30ean, eskolako parkean.

## IGANDEA 27

**ALTSASU** Moncayora igoera eginen du Mendigoizaleak taldeak.  
08:00etan, egoitzatik.

**ETXARRI ARANATZ** Triku Trail Mendi Lasterketa. 21 km-tako ibilbidea; 1.400 m-ko desnibela.  
09:30ean, kanpinean.

**ARBIZU** Alaitzen: udako kultur

egitaraua. Herriko dantzayek eta trikitilayek.  
12:00etan, plazan.

**ETXARRI ARANATZ** Etxarri Aranazko Abesbatzaren 50. urteurrenaren *Grandes hitos* kontzertua.  
19:00etan, elizan.

**ALTSASU** Euskal Presoak Euskal

Herrira elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.


## ASTELEHENA 28

**ALTSASU** Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.  
12:00etan, udaletxearen aurrean.


**ARBIZU** San Joanak 2021. **Haurren eguna.** Arbizuko Gazte Asanbladak antolatuta. Merendola, tailerrak eta jolasak.  
17:00etatik aurrera, plazan.

## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 25




Larunbata, 26



Igandea, 27



Astelehena, 28



## JAIOTZAK

• **Aratz Sanchez Aristorena**, ekainaren 14an Etxarri Aranatz

## HERIOTZAK

• **Francisca Ortiz Jurado**, ekainaren 16an Uharte Arakilen  
• **Felisa Bengoetxea Lasa**, ekainaren 18an Olaztin  
• **Juan Antonio Arrese Cosme**, ekainaren 21ean Olaztin  
• **Pedro Zudaire Gainza**, ekainaren 22an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

# Bazkide Zozketa

## URTARRILEKO SARIAK

### 1. SARIA

Marisa Arribas Urtasun (Altsasu)

### 2. eta 3. SARIAK

J. Ramon Eizagirre Azpiolea (Arbizu)  
Itsaso Ganboa De Miguel (Etxarri Aranatz)  
Ane Miren Iruretagoiena Aldazabal (Lakuntza)



gg

DISEIN  
KOMUNI





UA ETA  
KAZIOA

## IRAGARKI SAILKATUAK

## LUR SAILA

## SALGA

**Etxarri Aranatzen, Enfermogurutze dermioan, 8500m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai:** guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAINTZA

**Etxarri Aranazko Udalean aldi baterako idazkari lanpostua betetzeko deialdia:** Eskabidea uztailearen 7ko 14:00ak arte aurkez daiteke erregistroan (pertsonalki aurkeztuz gero) edo egun bereko 23:59ak arte (egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuz gero). Deialdiaren oinarriak [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web orrian, udal bulegoan eta Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan.

**Olaztikko igerilekuetako taberna errentan hartzeko aukera:** Interesa duenak bere ekonomia proposamena aurkeztu behar du (50 euro BEZ barne baino handiagoa izan behar du). Ekainaren 28ko 14:00etan amaitzen da udalerekin eskaintzak aurkezteko epea.

**Irurtzongo Pikuxar taberna berriaren lan egiteko zerbitzari bila:** Tabernetako zerbitzari bezala esperientzia, euskararen ezagutza eta txandaka lan egiteko prestasuna beharrezkoak izango dira. Asteko 37 orduko kontratua edo asteburuetako kontratu partzialak eskaintzen dira. Interesatuak bidali [Cva.pikutaberna@gmail.com](mailto:Cva.pikutaberna@gmail.com) helbidera. Jasotako CV-ekin Lan Poltsa osatuko da.

## IKASTAROA

**Gazteen parte hartze aktibo ikastaroa Altsasun eta Etxarri Aranatzen:** Urtxintxa eskolaren eskutik; parte hartu, jolasu, hausnartu eta partekatu zure ideiak ekintzara eramateko. Uztailearen 19, 20, 21 eta 22an goizeko 10:00etatik 14:00etara. Matrikulak eta informazioa Oinarriko Gizarte Zerbitzuetan; Altsasun 948 467 662

telefonora deituz edo 616 841 995 WhatsAppera idatziz, eta Etxarri Aranatzen 948 460 752 zenbakian edo 679 534 481 WhatsAppera.

## OHARRAK

**Irurtzunen Udako tailerra euskaraz:** Abuztuaren 2tik 13ra, 11:00etatik 13:00etara. 2009 urtetik 2016 urtera bitartean jaiotakoak barne. Bi talde egingen dira A eta D ereduetan banatuta. Izena emateko epea uztailearen 15ean amaitzen da Martxuetan izena eman eta 20 euroak ere bertan ordaindu. Aizpea elkarteak antolatuta.

**Irurtzunen Udako Igeriketa ikastaroak:** Uztailearen 5etik 29ra Itxasia Igerilekuan. Haur eta helduentzat: hasierako maila (4 urtetik aurrera) eta hobekuntza ikastaroa. Tarifa orokorra 60 euro eta Igerilekuetako bazkideentzako tarifa 50 euro. Matrikula egiteko ezinbestekoa da ordainketaren frogagiria (edozein banku edo kutxan ordaindu daiteke) eta udalerekin edota kultur etxean eskuragai dagoen inskripzio orria aurkeztea Udalerekin, ekainaren 25era arte. Mailaketa probak uztailearen 1ean, 12:00etan. Ikastaroak goizez izango dira. Informazio gehiago kultur etxean (948 600 412 tfnora) edo [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) web orrian.

**Etxarri Uden euskasien izena emateko epea zabalik:** Ekainaren 28tik uztailearen 30era izango da, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Prezioak: 5 asteak apuntatuta 200 euro, astea apuntatzeko aukera ere badago, 40 euro astea. Deitu 681 177 103 tfnora edo idatzi [udanetxarrieneuskias@gmail.com](mailto:udanetxarrieneuskias@gmail.com) helbidera.

**Arakilgo Udako Aisialdi Kanpua:** Aurtengo egotzera bereziari erantzunez haur kopuru gutxiagoko bi txanda antolatuta dira. Bietako bat aukeratu behar da: 1. Txanda Uztaileak 19-30 eta 2. Txanda abuztuak 2-13. Adina 5-12 urte bitartean. Orduetgia goizeko 10:00etatik 13:00etara. Prezioa: Pla-

za mugatuak direnez aukeraketa irizpideak honako hauek izango dira: 1. Arakilen erroldatuak, 2. Arakilen bigarren etxebizitza dutenak, 3. Irurtzunen erroldatuak eta azkenik beste guztiak. Arakilen erroldatuak 40€ eta ez erroldatuak 50€. Izena emateko azken eguna uztaileak 2. Informazio gehiago 634 584 223 telefonora.

**Lakuntzako festetako zapien banaketa:** 2020 urtean jaiotakoak ez dauden haurrek jaietan zapia jaso nahi badute, udalerekin izena eman beharko dute, uztailearen 23a baino lehen.

**Iruñean Laba egitasmoa aurrera eramateko diru ekarpen bila:** Euskara eta euskal kulturarentzat gune bat sortzea doaz Iruñeko Gazteluko plazan; Kulturagune bat, topagune bat, sorgune bat eta denon ekarpenekin eraiki nahi da Laba egitasmoa. Diru bilketaz aparte partaide aktiboak bilatzen dira etengabe birasmatezen den gunea izan dadin. Diru aportazioa egiteko sartu <https://labur.eus/itsulapiko> Itsulapiko plataforman. Informazio gehiago lortzeko edo harremanetan jartzeko, kuxkuxeatu [www.laba.eus](http://www.laba.eus) web orria, eta twitter / Instagram [@labasarea](https://www.instagram.com/labasarea) kontuak.

**Erabilgarri ez diren erradiografiak bilketa kanpaina farmazietan:** Nafarroako Farmaziarren Elkargoak eta "Mugarik gabeko Farmaziliarriak" GKE-k bultzatutako kanpainak helburu bikoitza du: batetik, ingurugiroa zaindu, ondo birziklatzen ez diren erradiografiak oso kutsakorrek direlako eta bestalde, duten zilarren salmentarekin Gobernu Kanpoko Erakundearen proiektuetara funtsak bideratzea. Erradiografiak bakarrik eman, sobre, informe eta beste-lakoak kendu eta gero. Kanpainak azaroaren 1era arte iraungo du.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## OROIGARRIA



## Aitzarte Barandiaran Garcia

I.urteurrena

(Altsasun hil zen, 2020ko ekainaren 21ean)

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin,  
oroimenean izango zara zu beti gurekin.

Maite zaitugu

Leire eta Oihan

## OROIGARRIA



## Aitzarte Barandiaran Garcia

I.urteurrena

(Altsasun hil zen, 2020ko ekainaren 21ean)

Zure gurasoek, anai-arrebek, ilobek eta gainerako  
senideek maite zaituzte eta ez zaituzte ahazten.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Zure familia

## OROIGARRIA



## Aitzarte Barandiaran Garcia


I.urteurrena

(2020ko ekainaren 21ean)

Beti egongo zara gurekin

Itsaso, Iñigo, Mertxe eta Julen

## OROIGARRIA



## Raúl Andrés Cuesta

II.urteurrena

Esperantzari utziezazozu  
landatzen hazia  
desioa bilakatu ilusio erauntsia  
Maitasuna izan daiteke  
mingots garratz eta gazia

Betiko gure bihotzetan

Ainhoa eta familia

Etxarri Aranatzen, 2021ko Ekainaren 25ean

## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta [guaixe.eus](http://guaixe.eus)-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ora arte.



ESKELA



**Juan Antonio Arrese Cosme**  
'Txato'

Beti gure bihotzetan!

**Zure KINTOAK**  
Ziordia

ESKELA



**Miguel Angel Montesinos Zornoza**

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

**Zure familia**  
Altsasu

ESKELA



**Juan Antonio Arrese Cosme**  
'Txato'

Zurekin pasatako momentu onen oroimenez

**Ziordiko lagunak**

ESKELA



**Txomin Garciandia Goñi**

Zuk emandakue guki gelditzen da farra, alaitasune, nortasune beti goguen yamanko ttugu gu biyotzetan, maitasunes

Fameliyek eskertzen diau jasotako babes ta maitasun guziye

**Etxekuek**

ESKELA



**Fernando Amillano Urdiain**

Alde zaharreko hainbat festetan talogileentzako egin izan duzun suaren gisan apal, ixil, goxo, abegikor jtzaltzen joan zara udari, San Juan bezpera hontan diosala eginez.

Hurren arte osaba!!



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
[edo.eskelak@guaixe.eus](mailto:edo.eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU**      **ETXARRI ARANATZ**  
Santa Cruz, 6      Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)



**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

**“Betidanik”**

☎ 948 19 70 70  
 🐦 @Grupolrache  
 📘 Grupolrache  
 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Triku Trail taldeko Iñaki Mauleon, Igor Artieda, Asier Beltza, Arkaitz Munarriz eta Jabi Matxinea. UTZITAKOIA

# Triku Trailaren aldeko apustua

**MENDI LASTERKETAK** Igandean, goizeko 9:30ean abiatuko da Triku Trail, Etxarri Aranazko kanpinetik gertu. Antolakuntzak ahalegin berezia egin du osasun baldintza guztiak bete eta mendi korrikalariari non aritu eskaintzeko. Ikusmina handia da

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI ARANATZ Igandea da egun handia. Pandemi hasi zenetik, lehendabiziko mendi lasterketa hartuko du Sakanak: Etxarri Aranazko Triku Traila. "Egun gutxi falta dira eta makineria topera dugu" azaldu du Triku Trail Taldeko Igor Artieda Galdeanok. Berarekin batera beste 7 kide dabilta antolaketa lanetan, baina proba egunean ehundik gora boluntariok laguntzen dute. Lan handia da, baina gustuz egiten dutena.

Triku Trail Etxarri Aranazko Kanpin inguruetan jokatzeko den 21 km luzeko eta 1.400 metro desnibel positiboko lasterketa eder bezain gogorra da, harizti, pagadi, trikuharri eta txoko ikusgarrietatik pasatzen dena. Probak hasieratik izan zuen arrakasta, baina aurtengoa sekulakoa izan da. Maiatzaren 24an zabaldu zuten izena ematea, 20:00etan, eta

aforoagatik baimenduta zitzuten 250 dortsalak ordu batean agortu ziren. "Azkenekoa 21:09ean sartu zen. Horrela jaso zuen ordenagailuak" dio Artiedak, irribarrez.

## Aurrera kosta ala kosta

Horrek korrikalariak lasterketetan aritzeko irrikaz daudela erakusten du. "Oso argi genuen Triku Traila antolatzeko aukera minimo bat egonez gero, harri helduko geniola. Eta horrela egin dugu. Niretzat, Triku Trail ez egitearen erabakia hartzea zaila izango litzateke, baina baita ere erraza, proba aurrera ateratzeko

**"ARGI GENUEN PROBA PRESTATZEKO AUKERA BAT BALEGO, HELDUKO GENIOKEELA" IGOR ARTIEDA**

bete beharreko protokoloak handiak direlako. Zintzoki, aurten indar eta energia gehiegi gastatzen ari gara protokolo madarikatu horretan. Askotan badirudi ez duela merzei halako baldintzetan zerbait antolatzea, baina harro gaude hartutako erabakia-ekin; aurrera jarraituko dugu, kosta ala kosta. Duela hilabete eta erdi landu genuen protokoloa arintzen ari da eta ez da hasieran bezain gogorra izango" azpimarratu du etxarriarrak.

Lasterketaren ibilbidea berbera izango da, irteera eta helmuga izan ezik. "Korrikalariendako gune itxi bat prestatu behar izan dugu, burbuila bat, soilik beraiek egon daitezten, publikorik gabe. Bertan beroketa egingo dute, eta aldi berean, irteera eta helmuga izanen da. Burbuila hori kanpinan egitea ezinezkoa zen, eta horregatik, kanpinera iritsi bai-

no lehen, ezkerretara dagoen itxitako lursail batean prestatu dugu" gaineratu du Artiedak. Bertan eginen da ere sari emate ekitaldia.

## Faboritoak

Korrikalarien irteera kronometratua izango da. 250 korrikalariak 50 pertsonako 5 taldetan banatuko dituzte eta taldetik taldera 3 minutuko tartea utziko dute. "Polita izaten da txapeldunak helmugara iristean zintak jarri eta argazki hori ateratzea, baina kronometratutako irteera batean azken unera arte ez dakizu nork irabaziko duen, oso agerikoa ez bada behintzat. Horregatik, lehen multzoan faborito nagusiak jarri ditugu, baina sorpresaren bat gerta daiteke" azaldu du Artiedak.

Triku Traila maila handiko proba izanen da. "Beñat Katarain, Ismail Razga, Juanjo Igarzabal eta Iñigo Macias daude faboritoen artean, eta agian Irati Trailean hirugarren sailkatutako Ander Pesquera etor daiteke" aipatu du. Emakumezkoetan, Euskal Selektzioako Onditz Iturbe, Nuria Mendivi eta beste aipatu ditu.

## Ibilbide gogor eta azkarra

Triku Trail ez dela lasterketa teknikoa dio Artiedak. "Xenda onak dira, eta harri gehiegirik ez dago. Gehiena lur gainean da. Proba gehienek ikur bat dute. Esaterako, Irati Trailen Orhi igo zen, Camille Extremek Ezkaurre igotzen du, Lakuntza-Aralarrek Hirumuga... eta hemen berezitasuneko bat da lasterketa guztia itzalean dela. Harizti eder batean hasten da, eta pagadi ederrago batean jarraitzen du, berriro hariztian bukatzeko. Ibilbidea gogorra da, baditu desnibel handiko bizpahiru aldapa nahiko luzeak. Finean, korrika egiteko aukera handiak ematen dituen ibilbidea da, azkarra".

Aurten, garrantzitsuen proba antolatzea zen. "Irati Trailean aritu ginenean oso agerikoa izan zen. Gehienendako ia lehendabiziko proba izan zen Iratikoa. Aspaldiko lagun eta ezagunekin egoteko gogoa handia zen. Hala ere egun baten ondoren etxera

**"250 DORTSALAK ORDU BAT ETA 9 MINUTUTAN AGORTU ZIREN: IKUSGARRIA" IGOR ARTIEDA**

gustura zatoz, eta Triku Trailean ere hori guztia bizitzea espero dugu" dio Artiedak. Aurten izena ematea 22 eurotik 15 eurora jaitsi dute, eta ez dute komertzioetan laguntzarik eskatu. "Errealitatea gordina dela jakitun, Etxarriko Udalarekin akordioa egin dugu, eta horrela atera dugu proba aurrera. Anoa postuetan soilik ura eskainiko dugu eta gune gutxiago egongo dira, pilaketak ekiditeko" azaldu du.

## 30 etxarriar baino gehiago

Etzi etxarriarren parte hartze errekorra gaindituko omen da. Orain arte gehienez 27 etxarriar inguru aritu izan dira Triku Trail batean, baina aurten 30etik gora izanen dira. "Etxarriarren alde-tik oso erantzun ona izan da" nabarmendu du Igorrek. Agerikoa da jendeak geroz eta kirol gehiago egiten duela. "Nola egon garen kontuan hartuta, uste dut beharra dagoela. Pandemiaren eraginez mendizaletasunak eta mendi lasterketek gora egin dute. Nik behintzat nire momentua hor harrapatzen dut; mendira noanean nire munduan egoten naiz. Niretzat oso aberasgarria da, eta uste dut jende askorendako ere hala dela" aipatzen du.

## Toki onenak

Igandean Triku Trail proba ikus-tera joatea goiz pasa polita izan daiteke, eta Artiedak sakandarrak animatu ditu. "Ibilbidea edozein tokitatik ikusteko ederra da. Hasieran lasterketa Fagamendiko dolmenetik gertu pasatzen da, 20 metrora, eta bueltan Fagamenditik sartzen da. Txaigorri ere antzeko zerbait gertatzen da. Lizarrustitik, aldiz, behin pasatzen da baina han jende dextente biltzen da. Izan ere Lizarrustiko aterpean autoa utzi daiteke eta 200-300 metrora Triku Traileko ibilbidea pasatzen da. Musika jartzen dugu eta giroa egoten da" nabarmendu du. "Ziur nago egun handia izango dela. Gurea ongi ateratzen bada, ea hemendik aurrera lasterketa gehiago antolatzen diren" espero du.

Pandemiagatik ezingo da azken urteetan antolatzen zen Triku Trail Txikia egin. "Pena da, polita zelako. Ehundik gora gazte-txok hartzen zuten parte. Korrikalari askok asteburu pasa egiten dute kanpinan familiarekin. Mendia, igerilekua eta lasterketa, guztia dute eskura. Aurten ezin da, baina itzuliko da" dio.





Ana Onaindia, Amaia Irazustabarrena, Lorea Arroniz, Silvia Marañon, Ane Eskala, Miguel Angel Aristorena eta Uxue Mendinueta.

# Mendinueta eta Eskala 1. mailako txapelaren bila

**PALETA GOMA** Bihar Nafarroako Emakume Master Cup Paleta Goma Txapelketako 1. mailako eta eliteen mailako final handiak jokatuko dira Etxarri Aranatzen, 18:00etan. Ikusmina handia da eta Navarra Televisionek zuzenean eskainiko ditu finalak

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranazko plazan eta San Joan bezperan aurkeztu zituzten, ponpa handiz, Nafarroako Emakume Master Cup Paleta Gomako Txapelketako final handiak. Larunbatean jokatuko dira, 18:00etatik aurrera, Etxarri Aranazko Euskalerrriari pilotalekuan. Sarrera dohainik izango da Etxarri

Aranazko Udalak emakumezkoen paleta goma sustatzearen alde hartutako konpromisoari esker, eta aforoa 300 pertsonakoa izango da. Ikusmina handia da, palista onenen txapelketa delako, eta 1. mailako finalean Uxue Mendinueta-Ane Eskala bikote etxarriarra ariko delako. Navarra Television kateak zuzenean

eskainiko du finala, 18:00etan hasi eta 20:30ak arte. 1. mailan Mendinueta-Eskalak Saralegi-Galarza izanen dituzte aurkari, eta elite mailan Irazustabarrena-Arrietak Isasmendi-Ruiz de Azua.

Emakume Master Cup taldeko ordezkariak eskerririk beroenak eman zizkieten Nafarroako Gobernuari, Laboral Kutxari eta

Etxarri Aranazko Udalari, txapelketa babestu izanagatik. "Nafarroako Kirol eta Gazteria Institututik txapelketa hau babesteko egindako gonbidapena eskertu nahi dizuegu; halaber, Etxarri Aranazko herriari eta Gure Pilota elkarteari esker ona adierazi nahi diogu, emakumezkoen pilota sustatzeko egindako lanarengatik. Eta, jakina, jokalariei ere eskertu nahi diegu, beraiek direlako protagonista nagusiak eta jakitun garelako txapelketa sekulako arrakasta izaten ari dela" azaldu zuen Kirol Institutuko Ana Onaindiak.

## Aristorenari eskertuta

Etxarri Aranazko alkate Silvia Marañonek gaineratu zuen "plazer handia" dela Etxarrin halako torneoa hartzea. "Berdintasunaren aldeko pausoak garrantzitsuak dira eta harro gaude. Eskerririk beroenak eman nahi dizkiogu Miguel Angel Aristorenari, urteak eta urteak daramatzalako emakumeen paleta goma sustatzen" nabarmendu zuen. Bestalde, Laboral Kutxako Lorea Arronizek aitortu zuen "ohorea dela halako ekitaldi batean Laboral Kutxaren aurpegia" izatea. "Kultura, kirola eta emakumeen indar hori sustatzeagatik kontentua gaude" gaineratu zuen.

Etxarri Aranazko Gure Pilotako presidente Miguel Angel Aristorenak nabarmendu zuen "oso pozgarria" izan dela halako

txapelketako finalak Etxarri Aranatzen jokatzea, eta txapelketan "maila oso polita" egon dela. "Neskekin Etxarri Aranatzen berdintasuna lortu dugu, eta hori da niretzat garrantzitsuena" aitortu zuen.

## Final lehiatuak aurreikusten dira

Aristorenak azaldu zuen "sekulako poza" hartu zuela Mendinueta eta Eskala palan jokatzerantz itzuli zirenean. "Erdi utzita zuten, ikasketak eta beste zirela, eta aurtun bueltatu dira. Horrek eman dit pozik handiena. Saralegi eta Galarza aurkari gogorrek dira, txapelketa guztiak jokatzen ari direlako eta jarraikortasun bat dutelako, baina Mendinueta eta Eskala oso onak dira. Bere garaian Euskal Herriko txapelkunak izan ziren eta sekulako maila politarekin heldu ziren, baina... bizitza. Finalean serio jokatzen badute, txapela jantzi dezakete" dio Aristorenak. Senior mailako finalean bere ustez Irazustabarrena eta Arrieta dira favoritoak. "Isasmendi eta Ruiz de Azua ere onak dira, baina uste dut hernaniarrak koska bat daukela gaitetik".

Antolakuntzatik iragarri zuten Aristorenari omenaldi txikia egingo diotela finalean. "Hala-koak izaten dira esateko: aittune, zoaz! (kar, kar) esan zuen. Aurtun Gure Pilota eskolan 35 neska trebatu dira. Haiei txapelketetan lehiatzen diren beste zortziren bat gehitu behar zaizkie.

## "Ea txapelak Etxarrin geratu eta ospatzerik dugun"

UXUE MENDINUETA ETA ANE ESKALA NAFARROAKO EMAKUME MASTER CUP PALETA GOMA TXAPELKETAKO 1. MAILAKO FINALISTAK

**Duela aste pare bat Parot eta Ansotegi taldekideen kontra Etxarri Aranatzen jokatutako finalerdian ederki izerditu behar izan zenuten finaleko txartela lortzeko.**

Bai, zerbait sufritu behar izan genuen, baina egindakoak zerbaitetarako balio izan zuen. Larunbatean dugu finala eta ea zer ateratzen den.

**Finalera heltzea espero zenuten?**

Zaila izango zela uste genuen, baina finalera heldu nahi genuen, eta gogotsu arituz azkenean helburua lortu genuen.

**Zein itxura izango du Euskalerrriari pilotalekuak larunbateko finaletan?**

**Aurreko igandean Uharte Arakilen jokatutakoetan ikusle asko hurbildu ziren.**

Bai, pentsatzen dugu frontoiak Itxura oso ona izango duela. Antolakuntzatik eskatu ziguten ea zenbat jende eraman behar dugun abisatzeko, eta ikusita askok baietz erantzun dutela, uste dugu jende asko joango dela eta giroa egongo dela.

**Aristorenak dio sekulako poza hartu zuela palan jokatzerantz itzuli zaretelako.**

Lehen asko ibiltzen ginen, baina hasi ginen bat Bilbon ikasten, bestea Gasteizen, eta akabo pala. Aurtun berriro itzuli gara eta egia esan, kontentua gaude.

**Aurtun itzulita finaletarako sailkatu zarete, onak zaretaren seinale. Hau marka!**

Badirudi ez dugula asko galdu (kar, kar...).

**Lekunberriko Saralegi eta Galarza dituzue aurkari. Finala nola**

**aurreikusten duzue?**

Final zaila izanen da, Lekunberrikoa bikote oso ona delako. Bikote sendoa da, eta ederki aritu beharko gara. Baina topera entrenatzen ari gara, eta ea txapela Etxarri Aranatzen geratzen den.

**Finalera iritsita, eta txapela lortzen baduzue, hori motibazio bat izan daiteke Aristorenari kasu egin, palan jarraitu eta beste txapelketa batzuetan aritzeko.**

(Kar, kar...). Bai, motibazio bat izan daiteke. Ikusiko dugu. Egia esan, oso gustura gaude.

**Zortzerik onena opa dizuegu.**

Eskerririk asko! Ea txapela lortu eta herrian ederki ospatzerik dugun!





**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN

Dani Saldise Martinikorenak (1995-07-08) joan den urtean Xota bere betiko taldea utzi zuen Inter Movistar talde ahaltsuan ibilbide berri bati ekiteko. 1. mailako areto futbol denboraldia bukatu berri, hartutako biderearen balorazioa egiteko tenorea heldu da. **Inter Movistar espero zenuena izan da? Nolako balorazioa egiten duzu?**

Amets baten bila etorri nintzen hona, erronka pertsonal baten alde borrokatzeko asmoz, eta gauzak ongi joan dira. Beti joan daitezke hobe, baina oso kontentua nago. Etxetik atera naizen lehendabiziko aldia izan da hau, nora eta Inter bezalako klub handi batera. Interreko elastikoak, nahi edo nahi ez, pisu handia du, klub gorapatua baita. Horregatik, elastikoa jantzi ahal izateko asko borrokatu behar da, bere pisuak zapaldu ez zaitzan. Aldeantzikoa gerta daiteke ere, hegoak eman ahal dizkizula. Eta niri eman dizkit. Profesional mailan bukatu berri dena nire denboraldirik onena izan dela konbentziturik nago. Eta maila pertsonalean ere oso pozik nago: etxetik atera naiz, amets bat bizitzen ari naiz, nire mailarik onena eman dut eta taldearekin 3 titulu lortu ditugu, egunero lortzen ez direnak.

**Espainiako Kopa, Superkopa eta Errege Kopa irabazi dituzu Inter Movistarrekin, baina zurea bezalako talde ahaltsu batean beti dago "baina" bat. Europako Championen finalerdietan erori zineten, eta 1. Mailako Ligako titulua lortzeko play-offetan final laurdenetan Barçaren kontra galdu zenuten.**

Bai, aipatu dituzunak "baina"-k dira. Championsean zortziko finalera iritsi ginen, Europako 8 talde hobereenen multzora. Final laurdenetan Ugra Yogorsk talde errusiar handia hartu genuen mendean, baina finalerdietan gerora txapeldun izan zen eta sekulako taldea duen Portugalgo Sportingek kontra galdu genuen. Eta beste "baina" 1. Mailako Play-offetan final laurdenetan Barçaren kontra erortzea eta datorren denboraldian Championsean aritzeko txartela emango ligukeen finalera ez heltzea izan da. 3 titulu lortu ditugu eta oso ongi dago, baina askoz hobe litzateke horretaz gain aurtengo Championsa irabaziko bagenu eta play-offetako finalera sailkatuko bagina, eta, zer esanik ez, play-offeko finala irabaziko bagenu.

# "Interreko elastikoak hegoak eman dizkit"

**DANI SALDISE MARTINIKORENA** INTER MOVISTAR TALDEKO JOKALARIA

**ARETO FUTBOLA** Irurtzungo pibotak debut eta denboraldi ikusgarria egin du Inter Movistar taldean. 3 titulu lortu ditu, eta bere ametsa bete dela aitortu du



Dani Saldise Interrek irabazitako Errege Koparekin. INTER MOVISTAR

**Denboraldi bukaerara arte ligako pitxitxi edo golegile nagusia izan zara baina azkenean bigarren sailkatu zara, Santa Colomako Drahovskiren atzetik.**

Bai, bigarren izan naiz, 25 golekin. Ia liga guztian ni nengoan aurretik, baina biak parean ibilginen, eta azkenik Drahovskyk 4 goleko errenta atera dit, 29 gol sartu baititu. Nahiz eta pena pixka bat izan, lehia polita izan da eta azkenean 25 gol dira, batera gaizki ez dagoena.

**Xota bezalako talde umiletik Inter Movistarrera joan zara, beti fabrito den talde ahaltsu batera. Presioa askoz ere handiagoa izango da, beti irabazi eta goian egongo zaretela espero baita.**

Hala da. Klub honek duen ona —ona ongi eramaten baduzu, eta txarra ez badakizu eramaten—, asko exijitzen duen kluba dela da. Baina asko, eta egunero. Klubaren exijentzia maila oso altua da eta talde honetara gatozen jokalariek horren bila gatoz, horrek zure onena aterako duelako. Zorionez, nik uste dut kluba nire onena ateratzen ari dela. Iristen zaren lehendabiziko egunetik barneratzen dizute presio

**"AMETS BAT BIZITZEN ARI NAIZ, NIRE MAILARIK ONENA EMAN DUT ETA 3 TITULU LORTU DITUGU"**

hori, eta horrek egiten du Inter Movistar talde txapelduna izatea. Hizketaldi, entrenamendu, partida eta saio bakoitzean zuzendaritzatik hasita talde teknikoraino, muineraino barneratzen dizute irabazi eta irabazi beharra dagoela. Eta berriro diotsut, jokalariek gara presio hori bilatzen dugunak. Zaila da, baina hori gainean eramateko modua lortu behar duzu, eta horretarako dago klub hau. Nik uste dut nire urte onenak ditudala aurretik.

**Madriren atek zabalik hartu zintuztela esan duzu beti. Inter Movistarreko zaleak eta Xotakoak oso ezberdinak dira?**

Klubak eta zaleek harrera bikaina egin didate. Hasieratik zaleen maitasun handia nabaritu nuen, bai sare sozialetan, hasieran partidak atek itxita jokatzen genituelako, eta gero baita kantxan ere. Eta ez soilik golak sartzen eta gauzak ongi ateratzen hasi zirenetik; lehen unetik babestuta sentitu nintzen. Kontuan hartu behar da ni ez nintzela izen handiko fitxaketa izan, eta hala ere zale gehienek fitxaketa pozgarri gisa ikusi ninduten; zaleak alde izan nituen hasieratik eta hori eskertzekoa da. Bessetik, Interreko zaleak ez dira Xotakoekin alderatuz horren ezberdinak. Nobleak dira, jende ona, Xotakoak bezala, eta taldearekin daude. Zortea izan dut, bi taldeen zaleak handiak baitira.

IRURTZUN-MADRIL

**Irurtzundik Madrilera. Zer moduko izan da aldaketa?**

Aldaketa guztiek bere zailtasuna dute, hasieran bereziki. Nik ez nuen atzean soilik klub bat utzi: nire herriko betiko taldea utzi nuen, 5 urte nituenetik bertan trebatu nintzen taldea. Horretaz gain, nire familia, lagunak, kuadrilla eta herria utzi nuen atzean. Eta aurrera egin nuen jakinda aldaketa gaizki atera ahal zela. Aldaketa oso handia izan da. Irurtzunek 1.300 biztanle pasa ditu eta 24.500 biztanle dituen Madrilgo herri batera etorri naiz, Paracuellos de Jaramara. Euredako herri txikia da, pentsa.

**Hori ez al da Belen Esteban bizi den herria?**

Hala omen da, nik ez nekien, baina jende guztiak hori esaten dit (kar, kar...). Kontua da Inter Movistarren kantxa bertatik 8-10 minutura dagoela, eta ez dago auto ilararik. Madril hiriburuan trafikoa ikaragarria da. Nik la-



saitasuna nahi nuen, aldaketa horren bortitza ez izatea, eta kantxatik gertu egotea.

#### Madriden kuadrilla egin duzu?

Entrenamendu saio asko ditugu eta asko bidaiatzen dugu, bereziki bukatu berri den denboraldi honetan. Beraz, ez dugu aisialdirako tarte gehiegi. Esango nizuke nire kuadrilla nire taldekideak direla. Sekulako taldea egin dugu. Egia esan, ez nuen espero halako klub handi batean halako taldea egotea, eta nik uste dut gure harreman hori kantxan islatu egin dela. Izan ere, oso giro ona dugu, lehendabizikotik hasita azkeneraino, bai jokalariaik, teknikariaik... Ez dago inor taldetik kanpo dagoenik, eta horrek flipatu nau gehien.

#### Zer botatzen duzu faltan?

Familia, lagunak, Irurtzungo berdea, mendiak... Nafarroa osoa faltan botatzen dut. Eta gastronomia. Hemen ongi jaten da, baina ez da berdin, gurea munduko gastronomiarik onena delako. Eta guztiaren gainera herria botatzen dut faltan, Irurtzun.

#### XOTAZ

**Zure talde ohiarendako, Osasuna Magna Xotarendako, aurtengoa ez da denboraldi erraza izan. Gorriak eta bi ikusi dituzte mailari eusteko. Kontuan hartuta taldea ia zerotik egin behar izan dutela, 1. Mailari eustea lorpen handia da.**

Bai, eta horrek asko poztu nau. Imanolek malabarismoa egin behar izan du zituen baliabideekin talde lehiakorra egiteko, eta beste behin erakutsi du entrenatzaile ona izateaz gain, kirol zuzendari bikaina dela. Begira nolako taldea sortzea lortu duen egin behar izan dituen murrizketak kontuan hartuta. Beste talde askok askoz ere baliabide ekonomikoko handiagoa dute, izen handiko jokalariaik, esperientzia gehiago, eta hala ere Xotak ongi jokatu du euren kontra. Niretzat Xotak gehiago merezi izan du, baina kirola halakoa da. Garrantzitsuena da Xota salbatu dela eta ziurrenik datorren denboraldian kalitatezko salto bat emanango duela, jokalariek esperientzia gehiago izango dutelako.

**"INTERREN EXIJENTZIA MAILA OSO ALTUA DA ETA HORREK ZURE ONENA ATERATZEN DU; HORREN BILA GATOZ"**



1. Mailako bigarren goleatzaile onena izan da pibot irurtzundarra. 25 gol sartu ditu, dituen urteak bezala. INTER MOVISTAR

#### Xotaren kontra jokatzeari arraro egin zaizu?

Hasieran oso arraroa egin zitzaidan, baina aldi berean sentsazio polita zen, Imanol eta Migel aukian ikusten nituelako, Xotako jokalariaik, asko lagunak direnak... Asier nire kuadrillakoa da eta Roberto nire anaia izango balitz bezala. Bynho, Mancuso... lagunak ditut, minutu eta bidai asko partekatu ditut beraiekin. Xotan ere asko poztu dira Interrekin lortu dituzun garaipenengatik. Bai, azken finean kantxan izan dezakezun lehiakortasunak ez du kentzen adiskidetasun harremana izatea.

#### Denboraldi hau berezia izan da eta oso gogorra.

Bai, sekulako estresa bizi izan dugu. Maila fisikoan egur handikoa izan da, gogorra, baina maila emozionalen esanen nizuke gogortasuna bikoitza izan dela. Bidaia asko eta partida asko izan dira. Ez ditugu garaipenak gozatu ezta porrotak sufritu, ez zegoen tarterik, hurrengo partida prestatu beharra zegoelako. Eromena izan da, baina asko ikasi dugu. Aurreko urteak baloratzen ikasi dugu, atsedean hartzeko eta partidak prestatzeko tartea genueneko, hain zuzen ere. Jokalari profesionalak garaiera erakutsi dugu, normaltasunetik erabat ateratzen diren gauzak egin ditugulako: aste batean hiru partida jokatu, hurrengoan bi, gero beste hiru... Hori pasada bat da. Alde horretatik, pena izan da play-offetako

finalerara ez sailkatzea, 10 hila-bete sufritzen egon ondoren, beste bi aste gehiago ez baitira ezer (kar, kar...). Asteazkenean hartu nituen oporrak, abuztuaren hasiera edo erdialdera arte, eta Irurtzuna joan eta atsedean hartzeko irrikaz nago. Guztiz deskonektatu nahi dut, ez dut baloi bat ikusi ere egin nahi.

#### IRURTZUN FUTSAL CAMPUSA Roberto Martilekin batera uztailaren 26tik 30era Irurtzun Futsal Campusa antolatu duzu. Lehenago hasi beharko duzu baloia?

Bai, hala da (kar, kar...), baina aurretik atsedean hartzeko tartea izango dut. Aurreko urtean ezin izan genuen campusa antolatu, baina aurreko bai, eta oso pozik eta gogotsu gaude. Irune Goikoa eta Jon Cerviño izango dira monitorea eta Asier Llamas gonbidatu dugu, baina Roberto eta ni campuseko egun guztietan bertan izaten gara, txikiekin jo eta ke lanean, oso gustuko dugulako. Txikiekin aritzeak betetzen gaitu. Gaztetxo gehienak irurtzundarrak, sakandarrak eta iruindarrak dira eta oso ongi pasatzen dugu. Etxera iristerakoan oraindik "Dani, Dani!..." oihartzuna entzuten jarraitzen

**"MADRILEN GAUZA ASKO BOTATZEN DITUT FALTAN, BAINA GUZTIAREN GAINETIK HERRIA, IRURTZUN"**

dut, baina hurrengo egunean campusera iritsi, haurtxoak ikusi eta pentsatzen dut: "baina nola ez ditut maitatuko, maitagarriak baitira...".

#### Robertok emakumezkoen Xota entrenatzen du. Agerikoa da entrenatzea gustuko duela eta horretarako prestatzen ari da. Zuk 25 urte dituzu eta jokalari izaten jarraitzeko urte luzeak dituzue aurretik, baina etorkizunean zure burua entrenatzaile ikusten duzu?

14 urte nituenetik neska-mutikoak entrenatu izan ditut eta gustuko dut, baina ez Robertok bezala. Robertok entrenatzeko balio du, eta pasioa du. Bizitzak buelta asko eman ditzake, baina nik ez dut nire burua etorkizunean entrenatzaile ikusten. Argi dudana da nire bizitza profesionalak kirolarekin lotuta jarraituko duela, baina beste esparru batzuetatik. Zein esparru izango den jabetu, lantzeko eta trebatzeko nahikoa tartea badut.

#### Zure ametsa betetzen ari da?

Bai. Denboraldi ikusgarria izan da hau. Inter klubeko jendeak esaten dit egiten dudana oso zaila dela, klub honetan hasieratik horrelako maila ematea ez dela erraza. Kontatu didate izen handiko jokalariaik etorri izan direla, fitxaketa top horietakoak, baina elastikoaren eta klubaren izena eta pisuarekin ezin izan zutela eta behera egin zutela. Eta nik klubera iritsi berri halako errendimendua ematea, bikaina izan dela. Aitortu beharra dut anbizio handiko pertsona naize-

la. Orain atsedean hartu nahi dut, datorren denboraldian askoz ere gogotsuago itzultzeko eta hurrengo aurtengo denboraldia baina hobea izateko.

#### ALDE PSIKOLOGIKOA

**Halako maila emateko alde fisikoak lantzeaz gain, mentala lantzen duzu? Esanen nuke elite mailan alde fisikoak baino garrantzi gehiago duela alde mentalak.**

Zalantzarik gabe. Alde fisikoak eta nutrizioa lantzearen ero bat naiz, eta lo eta atsedean orduen defendatzaile amorratu. Jokalari profesionala naizen aldetik, hori jakina da. Baina nik aparteko garrantzia ematen diot alde psikologikoari. Bizpahiru urte daramatzat Kepa Diez kirol psikologoarekin alderdi hori lantzen. Argi eta garbi dut nik aurreko maila pertsonalean eta maila profesionalen funtzionatu dudana bezain ongi funtzionatzeko Kepa ezinbestekoa izan dela. Ez soilik areto futbolari gisa, baita bizitzaren gainontzeko alorretan ere. Bizitzari aurre egiteko erremintak ematen dizkit, eta ni zoriontsu izateko baliabideak bilatzen laguntzen dit. Nigatik egin duena bihotzez eskertzen diot. Egiten dugun lanari horrenbesteko balioa ematen diot, datorren urtean edo hurrengoan unibertsitatean psikologia ikastea erabaki dudala. Horretarako prestatzen ari naiz. Oso gustuko dut kirol psikologiaren inguruko guztia; nigan erabateko eragina izan du, nire pentsatzeko modua guztiz aldatu du. Adimenak edo buruak duen boterea ikusgarria da.

**Osasun mentala ona izatea ezinbestekoa da, baina, tamalez, sarritan ez dugu behar bezala zaintzen.** Osasun mentalaren gaiak ez du tabu izaten jarraitu behar, eta, zorionez, gutxika hala izaten ari da. Horregatik nik sarritan psikologiaz hitz egiten dut egiten dizkidaten elkarrizketetan, psikologian sinisten dudalako. Ez nago kea saltzen. Taldeko jokalari bat baino gehiago hasi dira psikologo batekin lan egiten, sekulako tabarra ematen diadalako, baina hobetu dutela ikusi dute eta pozik gaude.

**"BIZPAHIRU URTE DARAMATZAT ALDE PSIKOLOGIKOA LANTZEN; EZINBESTEKOA DA"**



# Imanol Erbitiren 12. Frantziako Tourra

**TXIRRINDULARITZA** Hiriberrikoak 2010 urtetik jarraian hartu du parte Frantziako Tourrean, talde berean. Jose Luis Arrieta uhartearrak zuzentzen duen Movistar Team-eko talde gizon preziatuena da, eta Miguel Angel Lopez eta Enric Mas laguntzea du xede

Bihar, larunbata hasiko da 108. Frantziako Tourra, Bresten, eta uztailaren 18an Parisen despedituko da, 3.414,4 km osatu eta gero. Tourra Alpeetatik pasako da, baina aurtien Pirinioek protagonismo berezia hartuko dute. Aurreko urteko irabazle Tadej Pogacar, iazko txapelkunorde Primoz Roglic, Geraint Thomas, Richard Carapaz, Julian Alaphilippe eta Miguel Angel 'Superman' Lopez daude faboritoen artean.

## Preziatua

Imanol Erbiti Ollok (1983-11-15) 37 urte ditu eta Hiriberrikoak larunbatean ekingo dio bere 12. Tourra izango denari. Guztiak talde berean eta jarraian egin ditu, 2010 urtetik hona. Bere 12. Tourra izango denarekin, Miguel Indurain eta Chente Garcíaren parte hartze kopurua berdindu du. Bera eta bere taldekide Alejandro Valverde izango dira tropeleko beteranoenetakoak, eta, agian, estimatuena.



Beti bezain gogotsu dago Erbiti.

Jose Luis Arrieta uharre arakildarrak zuzentzen duen Movistar Team taldearendako ezinbesteko txirrindularia da Hiriberrikoa. Aurtien Enric Mas eta Miguel Angel *Superman* liderrak laguntzea izango da bere egitekoa,

eta baita Alejandro Valverderi sostengua ematea ere.

## Gauza politak

Erbitik azaldu duenez, etapa garaipenen bat edo podiuma lortzea dira aurtengo apustuak, taldekako garaipena ahaztu gabe. Izan ere, azkeneko 3 edizioetan Tourreko talderik onena izan da Movistar Team, baita 2015 eta 2016 urteetan ere. "Azken 6 urteetan taldekako txapelketa bost aldiz irabazi izanak erakusten du beti lehian sartuta gaudela" azaldu du. Berarendako esloveniarrak eta Ineos taldea dira faboritoak, baina Movistar Team taldeak "gauza politak" egin ahal dituela. Argi du bere egitekoa. "Taldea gizona naizen aldetik, gogor lan egingo dut nire liderrak une gakoan egon behar duten tokian, ahalik eta hobekien egoteko. Dudan guztia eman nahi dut, lasterketan bizi-bizi egon, eta, bereziki, bizikletan disfrutatu" azpimarratu du.

## Ezkurdia Nafarroako Lau eta Erdikoan sartuko da

**PILOTA** Arbizuarrak igandean final laurdenetako bat jokatu du Elordiren edo Etxeberriaren kontra

Ekainaren bigarren asteburuan hasi zen Nafarroako Lau eta Erdiko Txapelketa, final zortzirenekin. Joseba Ezkurdia da aipatu txapelketa ariko den ordezkari sakandar bakarra, eta arbizuarra zerrenda burua denez, igandean sartuko da lehian, Donostiako Atano III.ean, txapelketako final laurdenetan.

Ezkurdiak gaur, ostirala, jakingo du nor izango duen aurkari. Idiazabalek Nafarroako Lau eta Erdiko Txapelketako final zortzirenetako azken partida hartuko du, Elordiren eta Peio Etxeberriaren artekoa, eta irabazlea izango da etzi Ezkurdiaaren kontra ariko dena.

Igandeko Atanoko jaialdi berean Aspeko adarreko beste final laurdena jokatu da, eta kasu honetan buruz buruko txapelkunak, Altunak, Salaberria izango du aurkari.

## Altsasuko final laurdena

Baikoko adarreko final laurdenei dagokienez, larunbatean, Larrabetzun, Lasok eta Peñak dute hitzordua eta azken final laurdena Altsasun jokatu da, uztailaren 2an, ostiralarekin. Kasu honetan Urrutikoetxeak Larra-



Ezkurdia etzi sartuko da kaiolan. ASPE

betzuko irabazlea izango du aurkari: Laso edo Peña. Aspeko adarreko finalerdiak uztailaren 3an jokatu dira, Sopelan, eta Baikoko adarrekoak uztailaren 4an, Lizarran. Final handia uztailaren 7an jokatu da, Iruñeko Labriten.

## Publikoaren itzulera

Asteburu honetatik aurrera, jokatu diren partida guztietan publikoa izanen da, lehenengoz, aurreko urteko azarotik. Hortaz, Altsasuko uztailaren 2ko jaialdirako ere sarrerak salgai jarriko dira ohiko tokietan.



DN RUNNING

## Gasanz eta Bereziartu podiumean

**MENDI LASTERKETAK** Atarrabi Trail mendi lasterketan zenbait sakandar aritu ziren, eta guztien artean Javi Gasanz eta Jokin Bereziartu nabarmendu ziren. Hirumendi Trailean (25 km), 8. eta 9. postuetan sailkatu ziren (2:50:30), biak denbora berean, eta Dantzaleku Sakana Klubeko biko altsasuarrak Bikotekako Txapelketa irabazi zuen.



MULIER

## Mulierren helburua: itzultzea

**FUTBOLA** Irati Igoa Sesma etxarriarraren Mulier taldeak ezin izan dio Espainiako 1. Nazional Mailari eutsi. "1. Nazional Mailan 6 denboraldi egin ditugu eta bukatu da. Burua tente dugula goaz, azken partida irabaztearen harrotasunarekin. Nahiz eta minduta egon oso argi dugu zein den gure egitekoa: itzultzea. Borrokak jarraitzen du!" azaldu dute Mulier taldekoek.



ESPAINIAKO FEDERAZIOA

## Hunkituta

**TXIRRINDULARITZA** Igor Arrieta uhartearrak azaldu duenez, "23 urtez azpiko Erlojupekoko Espainiako Txapelketa urrezko domina lortzeko asko hunkitu nau".



# Ikasturtea sariarekin amaitu dute

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako zenbait taldek 'Dantzatu' lehiaketan parte hartu dute. Junior mailako Maitesua taldeak eta Senior mailako Txindokik hirugarren eta bigarren sariak irabazi zituzten, hurrenez hurren

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Larunbatean *Bilboko V. Dantza-tu dantza modernoa eta urbanoa lehiaketa* jokatu zen. Osasun krisialdiagatik online edizioa izan zen, eta bertan Altsasuko Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako zortzi taldek parte hartu zuten. Bik lortu zuten saria: Maitesua taldeak Junior kategorian hirugarren saria irabazi zuen eta estilo libreko Premiun mailan Txindoki taldeak bigarren saria irabazi zuen.

Bigarren urtez Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako dantzariak *Dantzatu* lehiaketan parte hartu dute, baina egoerak behartuta, aurtengo edizioa online izan da. Taldeek lortia kultur gunean koreografiak grabatu zituzten, eta ondoren lehiaketako antolatzaileek parte hartzaile guztien bideoak bideo plataforman baten bidez emititu zituzten. Ondoren, Aaron Mata eta Cuca Pon dantzariak eta *Dantzatu*ko epaimahai kideek irabazlearen izenak eman zituzten sare sozialetatik zuzenean. Kasualitatez, ekainaren 19an, online galaren egunean, dantzako eskolako jaialdian eguna zen.

Guztira, Altsasuko zortzi taldek parte hartu zuten *Dantzatu* lehiaketan: Maitesua, Sustraiak, Sugarra, Taupadak, Oreka, Txindoki, Oihuarima eta Sutan, adinaren eta dantza estiloaren araberrako mailan. "Aurten online formatua egingo zutela jakin genuen, eta parte hartzeko ideia interesgarria iruditu zitzaigun. Gabonetako oporren ondoren prestatzen hasi ginen", azaldu du Igone Augusto Maitesua taldeko koreografoak. Maiatzan aurkeztuko zituzten bideoak grabatu zituzten, "lan handia egin ondoren".

Maitesua taldeko kideak Iradi Betelu, Nora Pozueta, Erika Díaz, Olaia Carabias eta Haizea San Román dira. 13 eta 14 urte dituzte eta Junior kategorian parte hartu zuten. Hirugarren saria



Txindoki taldeak 'Dantzatu' lehiaketan aurkeztutako koreografia. UTZITAKOA

irabazi zuten, liriko eta garaikide estiloko dantza batekin. "Nik ez nuen saria espero lehenengo aldia zelako taldeak parte hartzen zuela eta maila oso altua zela banekien". Hirugarren saria irabazi zutela jakitean, "ezin nuen sinistu, hodei batean bezala nengoen, mila sentimenduekin". Ikasleekin oso harro da goela esan du koreografoak.

## Bigarren saria

Txindoki dantza eskolako helduen garaikideko taldeko dantzariak osatzen dute. 17 eta 48 urte bitarteko emakumeek osatzen dute. Premium kategoriako bigarren saria lortu zuten lehiaketan. Irantzu Gonzalez izan da koreografoa. Parte hartzea proposatu zuenean, "gezurra zela pentsatu genuen. Baina beti prest gaudenez, dena ematera joan ginen", esan du taldeko Izaskunek. Oraindik ezin dute egin duten guztia sinistu. "Erokeria bat izan zen, baina asko disfrutatu dugu eta gogotsu parte hartu dugu. Irantzu ondoan izaten oso ongi".

Irakaslea oso garrantzitsua izan da prestatzeko bidean. "Kariño handia eta positibismo handia kutsatzen du. Lortzen du diru-

diena baino errazagoa izatea, eta konfiantza handia du gudan. Guri ere konfiantza ematen digu, eta ziurtasun bat ematen digu", azaldu du Estherrek. "Nik beti esaten nuen irabaziko genuela, baina egia esan ez nuen horrenbeste sinisten", aitortu du Sandrak. "Beste taldeen maila ezagutzen genuen, baina ongi pasatzeraz joan ginen espektatiba handirik gabe". Bigarren saria jaso dute, eta "motibazio" bat dela aitortu dute.

Dantzarekin "zoriontsuak" direla aipatu dute Txindoki taldeko kideek. "Eskolara gogo handiz etorri naiz, eta berdina atera naiz. Oso zoriontsu itzuli naiz etxera". Sentsazio horiek mantendu behar direla esan du Ainhoa, Aguraindik etortzen den dantzariak. "Horregatik egiten dut dantza". Iritzi berekoak dira taldekideak. Sandra: "Egun horretan hamaika arazo badituzu ere... beste mundu bat da. Ahaztu egiten dituzu". Txipa aldatzen laguntzen du dantzak. "Ongi sentiarazten zaitu, libre, eta gauza asko adierazten dituzu. Zu zara", aipatu du Estherrek. Taldekideen artean, gainera, harreman berezia sortu dela esan dute.



Etxarri Aranazko Abesbatza pandemia garaiko entsegu batean. ARTXIBOA

## Abesbatzak bizirik eta osasuntsu jarraitzen du

2021. urtean zehar Etxarri Aranazko Abesbatzaren 50. urteurrena ospatzen ari dira

### ETXARRI ARANATZ

Mende erdi batean Etxarri Aranazko Abesbatzak milaka emanaldi egin ditu: antzoki handietan zein txikietan, hirietan zein herri txikietan; Nafarroan, Euskal Herrian, Estatuko leku askotan, baita atzerrian ere eskaini dituzte emanaldiak. Lehiaketetan parte hartu dute, eta sari garrantzitsuak jaso dituzte estatu eta nazioarte mailan. "Bere lan ona eta hobetzeko grina ibilbide osoan zehar" nabarmendu direla aipatu du Maria Goikoetxea abesbatza-kideak.

### Egoera

50. urteurreneko ekimenei abenduan eman zioten hasiera, harkada hauetan bildutako dokumentu eta argazkien erakusketarekin. Gainera, urte amaieran kontzertu bat egin behar zuten, urteurrenaren hasiera markatuko zuena. Baina osasun egoera zela eta, bertan behera utzi behar izan zuten. "Abesbatza, bizitzan bezala, egoera berriei aurre egitea tokatzen zaigu. 2019an 50. urteurrena ilusioz beterik prestatzen hasi ginen: gauza berriak, gonbidatuak, sorpresak... pandemiak beste plan batzuk zituen eta gureak aldatu zizkigun", azaldu du Goikoetxea. Hortaz, "ahal duguna" egiten jarraitu dute eta ilusioz prestatutako kontzertua igandean (ekainaren 27an) 19:00etan, Etxarriko elizan eskainiko dute. "Kontzertu polit bat eskaintzeko momentuan gaude, eta neurriak mantenduz, arriskurik gabe. Oso pozik gaude".

'Grandes Hitos' proiektuarekin bere ibilbidean "oso une garrantzitsuak" markatu dituen edo urtetan koroaren erreferente izan diren obren erreposoa egin nahi dute. 50 urtetan abesbatza parte hartu duten koralisten lana omentu nahi dute ere, "baita hura gidatu duten zuzendarien ahalegina eta jakinduria ere". Kontzertua "ilusio handiz, beti bezala", prestatu dute, "eta etxean abesteak asko pozten gaitu". Gogorra ere izan dela aitortu du Goikoetxea, "etenaldi batzuk egin behar izan ditugulako entseguetan, maskarakin abestea zailagoa delako, entseguen ordutegia eta lekua aldatu behar izan dugulako...". Ez da erraza izan, baina kide guztien lanarekin lortu dutela adierazi du. "Pozik eta harro gaude".

### Urteurrena

"Mila ideia polit geneuzkan 50. urteurrenarako, baina pandemiak beste bide batzuetatik eramaten gaitu. Ez du inporta". Mende erdia ezin bada, beraz, 51. edo 52. urteurrenaren ospatuko dituztela esan du Goikoetxea. Pentsatutako proiektu "polit hauek guztiak" aurrerago egitea gustatuko litzaiotke, "eta ziur lortuko dugula".

Pandemia hasi zenean eta egoeraren larritasunaz konturatu zirenean "inoiz izan dugun erronkarik bereziena" mahai gainean jarri zutela azaldu du abesbatza-kideak: "Hau dena bukatzen denean Etxarri Aranazko Abesbatza bizirik eta osasuntsu jarraitzea". Oraindik "arazoa ez da amaitu", baina bide onetik doaz.



Liburu Klik kanpaina martxan jarri dute Nafarroako mendialdeko euskara zerbitzuek.

## Uda honetan, egin liburuei klik

Nafarroako mendialdeko euskara zerbitzuek, Sakanako Mankomunitatekoak barne, 'Liburu Klik' kanpaina martxan jarri dute. Liburuak eta sare sozialak uztartzen ditu, eta euskarazko irakurketa sustatzea du helburu

**Erkuden Ruiz Barroso** SAKANA

*Liburu Klik* kanpainaren atzean sare sozialak eta liburuak dardela azaldu du Castillo Suarez Garciak, Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuko teknikariak. Mendialde bezala ezagutzen diren eskualdeetako euskara zerbitzuak bildu dira kanpaina komun bat egiteko; hortaz,

Baztanen, Malerrekan, Bortzirietan eta Iparraldeko euskara mankomunitateko eskualdeetan egonen da martxan kanpaina. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte egingen da *Liburu Klik* egitasmoa.

Liburu bat irakurri ondoren klik egitea proposatzen dute. "Lehendabiziko gauza liburu bat irakurtzea da; etxean duten liburu bat, liburutegitik hartutakoa edo liburu dendan erositakoa. Liburuak irakurri ondoren, sare sozialetan liburu horri buruzko zerbait jarri behar dute". Izan daiteke gomendio bat, kritika bat, bitxikeria bat... Edozein sare sozialen bidez zabaldu daiteke: *Twitter*, *Instagram*, *Facebook*, *Tik Tok*, *Youtube*, *Twitch* eta abar. "Sarrera

ru bat, liburutegitik hartutakoa edo liburu dendan erositakoa. Liburuak irakurri ondoren, sare sozialetan liburu horri buruzko zerbait jarri behar dute". Izan daiteke gomendio bat, kritika bat, bitxikeria bat... Edozein sare sozialen bidez zabaldu daiteke: *Twitter*, *Instagram*, *Facebook*, *Tik Tok*, *Youtube*, *Twitch* eta abar. "Sarrera

horretan garbi ikusi behar da liburuaren izenburua eta #liburuklik traola erabili behar da". Amaitzeko, horren "froga" euskara zerbitzura bidali behar da, Sakanako kasuan [euskara@sakanamank.eus](mailto:euskara@sakanamank.eus) helbidera.

### Elkarbanatu

Kanpaina sare sozialetara guztiz lotuta dago, baina bada sare sozialik ez duen jendea, moldatzen ez dena eta abar. Horiek ere Liburu Klikan parte hartzeko aukera izanen dute: "Gauza bera egin behar dute. Liburuak irakurri ondoren argazki bat egin, bideo bat, argazki muntaia... eta gero materiala zuzenean euskara zerbitzura bidali". Bestetik, 12 urtetik beherakoen kasuan, kanpaina parte hartzeko bi aukera dituzte: liburuaren protagonisten baten marrazkia egin edo liburuari beste amaiera bat eman. Lana egin ondoren zuzenean zerbitzura bidali beharko dute. "Ez da gauza erraza liburu bati beste amaiera bat ematea, eta bitxia izango da ere. Liburuetan protagonistak modu batez irudikatzen ditugu, eta ikusiko dugu beste irakurleek beste modu batera irudikatzen dituztela".

"Eta honek guztiak saria dauka". Haien irakurketak sare sozialetan partekatzen dituztenek liburuak merkeago erosteko opari txartela jasoko dute, kanpaina parte hartzen duten edozein liburu dendatan erabiltzeko: Irurtzungo Elustondo edo Martxueta, Etxarri Aranazko Kaxeta, Altsasuko Ar-

katz eta Liburunda. Sakanatik kanpo: Erratzuko Altxuko-denda, Leitzako Astitz eta Maimur, Elizondoko Axular, Berako Igone eta Purienea, Lekunberriko Lanbroa eta Nafarpress, Doneztebeko Ostiz eta Lesakako Xagu eta Telletxea.

Parte hartzaile bakoitzak txartel horrekin, euskarazko liburuak %30 merkeago erosi ahalko ditu (gehienez ere, 15 euroko oparia izango da liburu bakoitzagatik eta irailan zehar erabil daitezke). Bakoitzak gehienez, hiru opari txartel jasoko ditu.

### Elkarrekin

Lehendabiziko aldia da Sakanako Mankomunitateko euskara zerbitzuak udarako egitasmo bat martxan jartzen duela eta bigarren aldia mendialdeko euskara zerbitzuak elkarlanean aritzen direnak. Izan ere, Suarezek azaldu duenez eskualde hauetan haur jaioberriei banatzeko liburuak batzuk prestatu dituzte. "Oso liburuak politikak dira, eta horretan ari gara". Eskualdez gairako "beste makro eskualde bat" sortu dute, antzeko ezaugarriak dituzten eskualdeak direlako: "Ez bakarrik hizkuntzari begira, baita ezaugarri soziopolitikoak ere".

## MENDIALDEKO EUSKARA ZERBITZUEK ELKARREKIN ANTOLATU DUTE UDAKO EGITASMOA

## 'Dorotea'-k irabazi du aurtengo Etxepare saria

Amaia Egidazu Arrueren lana da, eta sariaren parte udazkenean Pamielak argitaratuko du

SAKANA

Etxepare saria Nafarroako 22 toki entitateko euskara zerbitzuek antolatzen duten album ilustratuak sortzeko literatur lehiaketa da; Sakanako Mankomunitateko euskara zerbitzua tartean. Literatur lehiaketen alorrean erreferentia bihurtu da eta 2021eko edizioan 30 lan aurkeztu dira. Haietatik Amaia Egidazuren *Dorotea* gailendu da. Natura eta kultura, tradizioa eta traizioa biltzen ditu albumak: "hona hemen amatxi, bakardadean, eguneroko deserosotasunen eta

eragozpenen aurrean, ausart, konponbide bila". Saritutako lana Nafarroako Pamiela argitaletxeak argitaratuko du udazkenean, eta lehiaketaren saria 5.000 eurokoa da, egile eskubideen aurrerapen moduan.

2021eko Etxepare sariko epaimahaia Leire Salaberria ilustratzaileak, Idoia Sobrino liburuzainak eta Patxi Zubizarreta idazleak osatu dute. Lan irabazleari buruz esan dutenez, testuaren aldetik paralelismoak, segidak eta errimak agertzen ditu, "oihartzuna landuz, josta gaitzen". Ilustra-

zioaren aldetik, "bihurrikaria, konplizitate dotorea, iradokizuna eskaintzen digu".

Amaia Egidazu Arrubek Biologia ikasketak egin zituen naturarekiko zuen begirunea zela eta. Ingurumena eta energia berriztagarrien sektorean lan egin ondoren, haurren pedagogiarekiko interesak arlo horretako formakuntzetan murgiltzera bultzatu zuen eta orain eskola aktibo batean lan egiten du. *Dorotea* Egidazuk idazten eta ilustratzen duen lehen liburu da, baina Tamara Chubasrovskyren errimak eta ipuinak euskarara itzuli eta moldatu ditu, eta txikiendako ipuin kontaketa ere egin izan ditu.

### Sariketa

Euskaraz sortutako albumen produkzioa sustatzeko helburua-



Amaia Egidazu ezkerretik bigarrena, sariaren aurkezpenean. UTZITAKOIA

rekin sortu zuten Etxepare sariak duela 15 urte baino gehiago. Beka bezala sortu zuten eta 2009az geroztik saria bihurtu zen. Beraz,

parte hartzaileek album ilustratuak amaituta entregatu behar dituzte, eta saria liburuak argitaratzea da.





'Memoria eraikiz' ikuskizunaren une bat. HORTZMUGA TEATRO

Eneida C. M. / Erkuden R. B.

LAKUNTZA

Hortzmuga teatro Bilbon sortu eta errotu den antzerki konpainia bat da. Hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidea du, eta kaleko antzerkia diziplina lantzen dute, gehien bat. Kaleak berezitasun bat duela esan du Nerea Llorente konpainiako kideak eta *Memoria eraikiz*. *Flores en el asfalto* proiektuaren zuzendariak: "Kalea bizia da, espontanea, publikoak joan etorriak egiten ditu eta sortzen den harremana oso zuzena da". Kalean egiten dituzten antzezlanetan gai sozialak lantzen dituzte, "batez ere publikoak lehenengo pertsonan bizitzen dituztenak". *Memoria eraikiz*. *Flores en el asfalto* ikuskizunean indarkeria matxista lantzen dute, modu berezian. Helburua sentsibilizatzea da, eta horretarako zentzumenekin jokatzen dute. Gaur, ekainak 25, ostirala, 19:00etan eta 20:00etan, Lakuntzako kultur etxean. Ikuskizunaren hizkuntza hasieran aukera daiteke.

Arteak eta kaleko arteak eraldatzeko tresna bat bezala ulertzen du Hortzmuga taldeak. Beraz, sortzen dituen ikuskizunak "ikus-entzulea gero etxera joaten denean edo gizarteratzen direnean ikusi eta bizi duten horri buruz hitz egitea" bultzatzen dute. *Memoria eraikiz*. *Flores en el asfalto* antzezlanaren kasuan Mugarik gabe erakundearen proiektu batetik sortutako lan bat izan da. "28 emakume haien

# Bidaia emozionala

Hortzmuga teatroa konpainiaren eta Mugarik gabe erakundearen 'Memoria eraikiz. Flores en el asfalto' ikuskizuna eginen dute gaur, Lakuntzako kultur etxean. Antzezlanaren Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatu du

testigantzak eta bizipenak elkarbanatu zituzten erakunde honekin". Antzezlanaren indarkeria matxistako istorio errealean oinarrituta dago. "Mugarik gabe gurekin harremanetan jarri zen eta hausnarketa ariketa bat egin nahi zuten. Proiektu horren inguruan arteak erabili nahi zituzten, eta sentsibilizatorako gehigarri bat izan".

Hortzmuga teatroak egin duena Memoria eraikiz proiektua ikuskizun bezala plazaratu, antzerkiratu edo diziplina anitzeko arte instalazio bat sortu du. "Proiektu horretan jasotakoa

**"NAHI GENUEN  
INDARKERIA  
MATXISTA MOTA  
DESBERDINAK  
ADIERAZTEA"**

bizipen artistiko batean bilakatu dugu". Llorentek azaldu duenez, indarkeria matxista bezalako gaiak landu nahi direnean eta sentsibilizazio lana egin nahi denean "hausnarketan geratzen da. Ez dugu lantzen bizipen horiek azalean bizitzearena". Sentsibilizazio lana "frustragarri" izan daiteke, helburua ez bada betetzen. "Sentsibilizatorako proiektu guztiek zer helburu dute? Gizartea eraldatzea, eta batez ere problematika sozial guzti hauetan beste ikuspuntu bat edukitzea". Hori da egin dutena. Memoria berreraiki egin behar zela uste dute: "Horrela sortu zen proiektu hau".

*Memoria eraikiz*. *Flores en el asfalto* ez da ikuskizun ohiko bat. "Ikuslegoa espazio eszenikora sartuko da. Bizipen bat da, bidaia emozional bat". Zentzumenekin jokatu nahi dute, eta

sentsibilizazio lan hori gauzatzeko "hausnarketa sakon bat" egin zuten. Proiektuaren helburua istorio errealean horiek ikusentzuleen azalean bizitzea da. "Dramatismo handiagoga dauka".

**Zentzumenak**

Llorentek aitortu duenez, Mugarik gabe erakundeak jasotako 28 emakumeen testigantzak irakurri zituztenean "kostatu zitzaigun formatua aukeratzea. Ez genuen sufrimendu puntual bat izatea nahi zeinetan publikoa sartzan den, puntualki sufritzen duen eta gero ateratzean berriz

**"FLORES EN EL  
ASFALTO'  
PROIEKTUAREN  
INGURUAN ARTEAK  
ERABILI NAHI ZITUZTEN"**

ahaztu egiten zaion ikusitakoa". Bizipenak zentzumenen bidez sartzan dira. "Biziko dituzte esperientzia horiek". Kolektibitatean, baina bizipena oso pertsonala da. Antzezle bakarra dago, eta erakundeak aurkeztutako 28 istorioetatik zazpi hartu dituzte eta fikzionatu dituzte. "Ez genuen testigantza errealek erakutsi nahi iruditzen zitzaigulako ez zela behar sentsibilizazio lan hori egiteko".

Indarkeria matxista mota desberdinak zeintzuk diren azaltzen dute zazpi istorio horien bidez. "Nahi genuen indarkera matxista mota desberdinak adieraztea; instituzioen barruan ematen direnak, lan arloan, homofobia, abortatzeagatik zigorra, justizia eremuan eta prozesuetan zer eta nola pairatzen dugun eta abar. Gertatzen dena da indarkeria hori hain barneratuta dugula konturatu ere ez garelako egiten".

Antzezlanaren beste berezitasun bat da hizkuntza norberak aukeratzen duela. "Horregatik bizipen kolektiboa izan arren badago alde oso pertsonala: hizkuntzaren arabera eta bizitzeko moduaren arabera". Hizkuntza bakarrean egiteak esperientzia mugatzen zuela uste zuten.

**Sentsibilizazioa**

Ikuskizunaren ondoren Mugarik gabeko eta Hortzmuga teatroa konpainiako kideekin hitz egiteko aukera dago. Jende asko hitz egitera hurbiltzen dela aipatu du. "Gizonezkoen kasuan lehenengoz emakumezkoek sentitzen duten segurtasunik eza, beldurra eta tentsioa sentitu dutela esaten digute". Hori da helburu nagusia, "zure azalean haien bizipenak sentitzea".

Publiko orokorarentzat zuzenduta dago, 16 urtetik gorakoendako. "Gertatu izan zaigu gazteagoak sartu izana, baina heldu batekin joatea eskatzen dugu". Ez istorioa ez dutelako ulertuko edo formatua bortitza delako, "ez baita hain bortitza", batez ere jorratzen diren gaiak adin horietan ez dituztelako berdindatzen azaldu du Llorentek: "Gero haiekin hausnarketa edo elkarrizketa egin behar da". Helduak, aldiz, ulertzen dute jasoko dutena, "batzuentzako oso gertukoak direlako". Gazteak bertaratzea interesgarria iruditzen zaie, eta haien publiko "gehiengo" emakumezkoak dira, "azkenean sentsibilizatuenak gara".



Mikel Azpiroz barraren beste aldean. UTZITAKOIA

## 10 Nola antolatzen zarete?

Gu untan sartu berriak gara aurtengo urtea egiteko. Normalean juntan bi edo hiru pertsona egoten dira, tokatzen zaiena, eta haiek eramanen dute pixka bat elkartearen ingurukoguztia. Ederia, mantentzea... Denataz arduratzen gara. Auzolanen bategin behar denean, deitzen da. 10 edo 15 urtetik behin gutxi gorabehera tokatzen zaigu egitea. Ardura pixka bat da, baina egia esan ez dago masifikazio handirik. Erraz eramanen da. Erraz egiten den lan bat da.

## 11 Urteurrenagatik zerbait berezirik egingo duzue?

Ez dira garai hoberenak ospakizunetan ibiltzeko, baina zer edo zer egingen dugu. Urte guztiak hartu behar dira kontuan.

# "Bordatxo elkarteak topagune bat da"

Lizarragabengoako elkarteak 30 urte betetzen ditu aurtengo. Lixe eta Mikel Azpiroz egungo juntakideak dira. Herritarren bilgunea da Bordatxo elkarteak, herrian gertatzen denaren lekuko mutua da

Eneida C. M. / Erkuden R. B.  
LIZARRAGABENGOA

### 1 Zenbat biztanle ditu Lizarragabengoak?

Gaur egun 34 biztanle ditu. Asteburutan bat edo beste elkartzen dira. Garai batean, orain dela zenbait urte 40 bageunden. Gurasoen adinean jende gehiago egonen zen. Etxeetan jende gehiago bizitzen zen, ezkontzean alde egiten zuten, baina etxe gehienetan sei edo zazpi pertsona bizi ziren seguru; aiton-amiñenkin eta denak elkarrekin bizi ziren. Kopuru bat esateagatik, ez dakit, 60 edo 70 biztanle izanen zituen. Inoiz gutxiago izan dituen ez dugu uste.

### 2 Haurrak jaiotzen ari dira?

Aspaldi honetan ez, baina badago Lizarragabengoan jaio ez baina bertan bizi den emakumezko bat hiru urteko mutiko txiki bat duena. Printzipioz gureak 12 urte gazteenak eta zaharrenak 16 urte dituzte. Etorkizun pixka bat badaukagu, momentuz.

### 3 Elkarteak 30 urte bete omen ditu.

Printzipioz elkarteak Lizarragabengon 30 urte baino gehiago dauzka. Gaur egungo elkarteak 30 urte, bai, baina lehendik bazegoen beste elkarte bat. 49 urte dauzkat eta ezagutu nuen aurrekoa.

### 4 Beraz, lekuz aldatu zen?

Orain dela 30 urte lekuz aldatu zen. Bestea partikularra zen, bere garaian borda bat utzi zieten, txukundu zuten sua eta barra bat jarri. Gero elizaren etxea zena obispatuak herriari bueltatu zion eta orduan erabaki genuen kontzejua eta elkarteak bertan egitea. Elkarteak Bordatxo izena du zaharra Bordatxo zelako, eta berria ere bai.

### 5 Aurrekoaz gogoratzen zarete?

Auzolanek nola egin zen, baina gutxi gehiago. Eraikuntzan lanean hasi berri nengo eta bertan aritu nintzen laguntzen.

### 6 Elkarte bat egoteko beharra zegoen?

Garai hartako jendeak horrelako lokal bat beharrezkoa zela pentsatuko duzen. Horren jarraipena izan da berria.

### 7 Zenbat jenderendako dago tokia?

50 edo 60 pertsonendako lekua dago mahaietan.

### 8 Zein da elkartearen erabilera edo helburua?

Batzarrak egiteko tokia da. Zerbait baldin badago hor elkartzen gara: herriko kontuak, batzarrak, festetan, gabonetan, kalez kale joan aurretik bertan elkartzen gara ere hortik hasteko. Urte batzuetan bertso saioak eta txapelketaren bat ere egin zen bertan, baina horretaz gain, afariak, gosariak eta horrelakoak egiten dira. Elkartegune bat da.

### 9 Egunerokotasunean jendea egoten da?

Ez da erraza, baina aukera egon daiteke. Jende batzuk gehiago ibiltzen dira eta beste batzuk gutxiago. Azkenean, herriko elkartzeko puntu bat da.

DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA